ttipi ttapa

301

2001eko maiatzak 3 • XXI. urtea



04

**Hemendik aitzin Azkaingo berriak**

Azkaindar batzuek eskaturik, eta hiru gazteren susteguarekin, TTIPI-TTAPAK Azkaingo berriak ere bilduko ditu bi aste guziz.



28

**Joseba Beola auto gidaria**

Lesakako Rally Sprint auto igoera irabazi ondotik, Nafarroako Txapelketako sailkapenaren buruan dago gidari beratarra.

03

# Kontzertua Herri Urrats bezperan

Sarako Olhain ikastolak antolatua Gaztetxearen laguntzarekin




AITOR AROTZE

ZABORRAK BEREIZI ETA BOTA BAKOITZA BERE ONTZIRA: ASKI ERRAZA DA



# PAPERA ETA KARTOIA

## Kolore urdina duten zaborrontzietan

- Egunkariak eta aldizkariak
- Foiletoak eta publizitate orriak
- Kartoizko kaxak, ...

***Birziklatu, guztiok irabaziko dugu***

BAZTANGO UDALA

ZABORRAK BEREIZI ETA BOTA BAKOITZA BERE ONTZIRA: ASKI ERRAZA DA



# ENBASEAK

Brik, plastiko eta metalezkoak

## Kolore horia duten zaborrontzietan

- Garbiketa produktuen botilak
- Ur eta freskagarrien botilak
- Esne eta zuku ontziak
- Freskagarri eta kontserba latak

***Birziklatu, guztiok irabaziko dugu***

BAZTANGO UDALA

BIRZIKLATU, GUZTIOK IRABAZIKO DUGU

# TAMAINA HAUNDIKO HONDAKINAK



**BAI**
- Mobleak, hozkailuak, telebistak, motoak...
- Gehienez ere hiru lagunen artean mugitzeko modukoak

**EZ**
- Industria eta obrako hondakinak
- Animali hilak eta hondakin begetalak

***Biltzeko Eguna:***

***BAZTANEN HILABETEAREN 4. ORTZEGUNEAN***

***Telefonoz deitu asteartea baino lehen eta etxera joanen dira biltzera***

***BAZTAN ✆ 948 580 006***

## DATUAK...

**• 21 urte ditu Xan Harriague saratarrak eta duela sei urte hasi zen Gaztetxean lanean.**

**• Maiatzaren 5ean eginen den kontzertua antolatzen aritu dira gazteak Olhain ikastolako gurasoekin batera.**

**• Sarako trikitixak, Unama, Empalot, The 3peace (Japonia), Anestesia eta Eztanda taldeek joko dute.**




**Xan HARRIAGUE** *Sarako Gaztetxekoa*

# «Bigarren belaunaldiak mugimendu berria eman dio Gaztetxeari»

Aitor **AROTZENA**

**Noiztik ari da lanean Sarako Gaztetxea eta zenbat gazte biltzen zarete?**

Hamahiru-hamalau urte izanen dira Gaztetxea antolatu zela. Orai bigarren belaunaldi bat hasi da lanean. Duela hiruzpalau urte hutsune bat izan zen, jardunaldi gutxiago egiten ziren. Orai berritz motibatuak gara eta mugimendua bada. Hogeita hamar edo beharbada berrogei gazte biltzen gara Gaztetxean, baina toki guzietan bezala, lanean hamar-hamabost bat aritzen gara.

**Zen da Sarako Gaztetxearen xede nagusia?**

Gazteendako leku bat ukaitea eta leku horren bitartez euskara eta Euskal Herriaren inguruan egiten diren ekitaldiak bultzatzea da gure xedea.

**Herri Urrats bezperako kontzertuaz gain, zer ekitaldi antolatzen duzue?**

Kontzertuaz gain, Gaztetxeak Sarako ihauteriak antolatzen ditu. Larunbatean etxez etxe ibiltzen gara eta igandean animazio bat ekartzen dugu plazara eta herri bazkaria egiten da. Gan den urtean Euskal Herriko gaztetxeen arteko futbol txapelketa egin genuen eta hamar Gaztetxe bildu ziren. Sarako bestetan Gaztetxea irekitzen dugu eta giro polita sortzen da. Zirimolan kultur hamabostaldian parte hartzen dugu, Azkaine, Sara eta Berako elkarteekin batera.

**«Gazteendako leku bat ukaitea eta leku horren bitartez euskara eta Euskal Herriaren inguruan egiten diren ekitaldiak bultzatzea da gure helburua»**

**Kontzertua antolatzen ere urte saila daramazue...**

Ez dakit xuxen duela zenbat urte, kasik Herri Urratsen hastapenetik ari gara bezperako kontzertua antolatzen. Guraso eta gazteen artean antolatzen dugu, baina musika Gaztetxeak antolatzen du, gurasoak musika aldetik pixko bat *pasatuak* daudelako. Duela bi urte arte Seaskarentzat izaten zen dirua, baina bulegoan aldaketa izan zen eta erran ziguten ez zeudela interesatuak gaupasa horrekin. Orduan, Olhain ikastolarendako dirua biltzeko antolatzea pentsatu genuen. Hikamika batzuk izan ziren, Herri Urrats gaua izena atxiki edo ez, baina guretzat hikamika faltsuak ziren, dirua euskararentzat baitzen finean, izan Sarako ikastolarentzat edo bertze ikastola batentzat. Ehunetik hamar bat Gaztetxearendako gelditzen da.

**Larunbateko kontzertuko berezitasuna Japoniako taldea izanen da...**

Egiten diren kontzertuetan taldea maiz ikusia izaten da eta azken urtetan aldatzeko gogoa izan dugu Saran. Esan Ozenkiren bitartez atxeman genuen Japoniar talde hori eta zertako ez? Hemen ez ziren ikusiak eta berezitasun bat da.

**Eta bertze berezitasun bat, zenbat eta goizago sartu kontzertura, sartzea merkeago izanen da. Zergatik?**

Iparraldean azken urteetan modan jarri den gauza. Guztiz komertziala da: goizago etortzen denak garagardo gehiago edaten du eta diru kontuan hobekiago ateratzen gara. Giroa ere goizago montatzen da, bertzenaz jendea berandu etortzen da.



Azkainek 3.100 biztanle ditu egun. Azken urteotan nabarmen goiti egin du biztanlegoak. Bizilagunen laurdenak 20 urte baino gutiago du eta 75 urte baino gehiago dituztenak 7% bertzerik ez dira.



- **Azalera:** 1927 [illegible]
- **Muga herriak:** Bera, Sara, Senpere, Donibane Lohitzun, Ziburu eta Urruña
- **Populazioa:** 1999ko martxoaren [illegible] Azkainek 3.097 biztanle zituen (1525 gizon eta 1572 emazte) [illegible]
- **Lana:** 1.206 biztanle lanean [illegible] 915 herritik kanpo lan egiten dute [illegible] 182 lanik gabe
- **Auzapeza:** Jean Louis Laduche
- **Auzoak:** [illegible] Arana, Mendiola, Morreta, Plaza, Portua, Sorts.

# ttipi-ttapak Azkaingo berriak ere bilduko ditu

**Azkaindar batzuek eskaturik, eta hiru gazteren sustenguari esker, TTIPI-TTAPA Azkainen ere agertuko da. Aldizkariak tokiko berriak bilduko ditu, bi aste guziz, artikulu bat kokatuz "herriz herri" zatian. Senpere eta Sarak proiektu honetan parte hartzen dute jadanik. Nafarroako berriak nagusi baldin badira ere, Azkaine Lapurdiko hirugarren herria izanen da aldizkarian bere orrialdea izanen duena. Angelak, Ihintzak eta Enekok haien proiektua azaltzen digute.**

ttipi-ttapa

1990. urteaz geroztik Sarako berriak biltzen dira TTIPI-TTAPAn eta 1998az geroztik Senperekoak. Hemendik aitzin, hamabortzero Lapurdiko hirugarren herri batek ukanen du bere orrialdea eta Azkaingo berriak ere bilduko dira aldizkarian. Tokian tokiko berriak bildu eta galdegiten duten herritar guzieri banatzea da TTIPI-TTAPAren xedea.

Azkaindarrek ttipi-ttapa eskuratzea aski errexa izanen dute. Harpidetzak egiten ahal dira telefono zenbaki hauetarat deituz: 05 59 54 03 57 (Angela) edo 05 59 54 06 20 (Eneko). Aldizkariak etxean errezebituko dituzte postatik hamabortz egun guziz. Harpidetzak 180 Libera kostatzen du urtearentzat.

Diru kontuak alde batera utzirik, bi astetarik Azkaingo berriak hurbilagotik ezagutzeko modua eskainiko da. Hasteko, herriz herriko kronikaz gain, erreportai honekin Azkaingo portreta atera nahi izan dugu, hiru mila biztanle dituen herri honen kokapena, historia, elkarteen bizia eta bertze xehetasunak ezagutuz.



### Azkaingo historiaren aztarnak

Administrazioan Azkain herriaren lehen aztarnak 1130-eko dokumento batean agertzen dira baina Lamunen aurkitzen ahal diren trikuharri eta harrespilek erakusten dute prehistorian jadanik jendea bizi zela inguruetan (artzainak).

Geroztik eraikuntza ainitz egin izan dira eta herriaren historiaren es

## AZKAINGO ELKARTEAK

# Kultur eta kirol elkarteetan biltzen dira azkaindarrak

Azkaindar ainitzek elkarte batean parte hartzen dute: kirola (Elgarrekin eta Azkaindarrak-bat), musika (Kornelio, Larrundarrak), Xaharrak (Adin goxoa), Kultura (Zirimolan eta Altxalili), Gazteak (Gemuku), Euskal dantzak (Ikasleak) eta bertze ainitz... Ala ere kirolak du gaur egun toki gehiena hartzen:

Elgarrekin: elkartea sortu da 1973-an rugbyarekin, saski baloiarekin eta atletismoarekin. Teniza hasi da 1985-ean. Ondotik "cyclo-tourisme" 1990-ean, alpinismoa 1998-ean.



**Errugbia**
Errugbiak jende ainitz biltzen du. Haurrak gazte hasten dira errugbi eskolan herriko ohituretan sartua den kirola bat delako.

**Teniza**
Tenizak 100 lizienziatu ditu. 70 haur eta 30 heldu. 3 bikote "pré-national" mailan ari dira. Zenbaki hauek erakusten dute Teniza ez dela bazterrerat utzi behar Azkainen eta Ramuntxo Irigoien zuzendariak hori azpimarratu nahi du, kirol strukturak ez direlako gehiago elkartearen neurrian.





**Atletismoa**
Atletismoan 45 haur eta 45 heldu dira. Badu orai 25 urte Azkainen sekzio hori lanean ari dela Donibane Lohizungo konkurentziari aurre eginez. Pittaka pittaka aktibitateak emendatu dira. Cross lasterkaldiak baizik ez ziren hastapenean. Orai, atletismo kirol gehienak praktikatzen dituzte. Urte guziz aboztuan Larrungo Kurtsa antolatzen dute.





**Saski baloia**
Saski baloiak 100 lizentziatu ditu. 25 senior, 10 Kadet, 24 benjamin, 10 xito eta beste 23 haur. Neska helduak apirilaren 29 finalean ziren eta Mutiko gazteenak "Challenge" mailako finalean arituko dira.

**Palantxa**
Azkaindarrak-bat elkartea 1931-ean sortu da. 4 arduradun dira : Maskotena eta Albistur jaunak ( Xare, Errebote eta Joko Garbi). Beñat eta Mixel Etxeberri (Palantxa). Ignace Berasategi eta Michel Etxeberri (pilota).





bizimoduaren aldaeraren lekuko interesgarri ainitz badira. Bainan ez dugu beti xehetasun haundirik haieri buruz. Azkaingo etxe zaharrena Izotzagerria da (1235). Eliza noiz eraikia izan den ez dakigu bainan 600 urte baino gehiago dituela pentsatzen ta. Askubea 1574-ean eraiki zuen ...ionako Apezpikuak. Serreseko kaperaren adina ez da ezagutua bainan ...kiak berak 800 urte baino gehiago ...tu. Erromano zubia, ez bada erromatarren garaian eraikia izan ere, pentsatzen dugu XVI. mendean egina izan dela. Bederatzi errota gelditzen dira herrian, zaharrena Olhaberrietako behereko errota delarik.

## Angela, Ihintza eta Eneko *Azkaindarrak*

# "Gure herria ez da bakarrik Donibanen lan egiten dutenen pausalekua"

**Zergaitik ttipi-ttapa Azkainen?**
Gure herrian ere jende ainitzek Euskaraz irakurtzea maite du. Maite du ere herriko berrien ezagutzea. Ttipi-ttapa aldizkariari esker biak lotzen ahal dira. Badira ere Azkainen Euskara ikasten edo berriz ikasi nahian diren pertsona ainitz. Haientzat ere egina da aldizkari hau Euskara sinple batean idatzia baita eta tokiko berriak agertarazten baititu. Bertzalde, Azkaindarren arteko komunikazioa hobetzen ahal dela segur da. Hortarako espero dugu herritarrek lagunduko gaituztela.

**Nolako laguntza nahi duzue?**
Guk ez ditugu herriko berri guziak ezagutzen ahal. Elkarte batek adibidez animazio bat antolatzean gogotik aipatuko dugu gertakaria Ttipi-ttapan, hori baita ere gure helburua, Azkaingo bizia komunikatzea.

**Zer da aipagai Azkainen?**
Gure herria ez da bakarrik Donibane Lohizunen lan egiten duen jendearen pausalekua. Azkaine altxorrez betea da. Artikuluen gaiak edozoinak izanen dira: ekonomia, elkarteen bizia, etxebizitza, gazteak, zaharrak, historia...

## •PRENTSATIK BILDUTAKOAK•




Diario de Navarra 01eko apirilak 23

*«Lehen ez nintzen pilotari txarra eta orain ez naiz hain ona ere, hori badakit. Ongi jokatzen ari naiz, eta hori seinale ona da niretzat. Oinak lurrean ditut eta badakit pilotan aldiak izaten direla, onak eta txarrak izanen ditut. Gora allegatzeko oinarria partidu bakoitza ongi jokatzen saiatzea da».*

Abel BARRIOLA
Leitzako pilotaria
Diario Navarra 01-04-23

*«Ilusioa mantentzeko bertsotan egin behar da eta Nafarroan dagoen aukera bakarra momentuz txapelketa da. Bertsolaritza txapelketagatik dago bizirik, baina txapelketak beti ematen ditu ostikoak. Bat edo besterentzat ona izaten da, baina beste denentzat txarra».*

Manolo AROZENA
Lesakako bertsolaria
Argia 01-03-29

*«Kilo bat gehiago ez da deus ere, baina atzetik beste 300 daude. Igo eta igo joan gara eta orain topea ikusten ari naiz, hortxe bertan dago muga, oso hurbil. Urrutiagoa egotea gustatuko litzaidake, baina hor dago».*

Migeltxo SARALEGI
Leitzako harrijasotzailea
Diario Navarra 01-04-23

## • 11 GALDERA LABUR •



**Ander OLAIZOLA** *Goizuetako argazkilaria*

- **Bidaiari edo abenturazale?**
  Biek lotura estua dute neretzat.
- **Ikusi duzun lekurik zoragarriena?**
  Alaska.
- **Argazkirik ederrena?**
  Gezurra badirudi ere, Arramaltan atera nituen batzuk ditut gustokoen.
- **Zein komunikabidetan argitaratu dira zure argazki eta lanak?**
  National Geographic, Pirineos, etab...
- **Bidaiatzea ofizio bat izan daiteke?**
  Ofizio hitza ez nuke erabiliko. Bizitzeko modu bat izan daiteke.
- **Zenbatsu diru behar da hilabete pare batez bidaiatzeko?**
  Abioiaren gastuez aparte, arrunt gutxi. Nik Alemanian hilabete bat terdi 30.000 pezetarekin igaro nuen.
- **Munduan zehar asko ibili zara... eta Euskal Herrian?**
  Hemen ere asko mugitu naiz. Araba izan ezik dexente ezagutzen dut. Gehiena Nafarroa eta Iparraldea.
- **Andregaia egiteak aldaketa suposatu al du zure bidaiari espirituan?**
  Ez. Bidai batzuk berekin egin ditut gainera.
- **Hurrengo bidaia nora?**
  Orain Euskal Herriko baserriari buruzko liburu bat prestatzen ari naiz. Udabetetik goiti eramanen dit. Bukatutakoan Bielorrusiara joanen naiz baionte europearraz erreportaia egitera.
- **Anekdota bat?**
  Neska eta biok auto-stopean hartu gintuen gizon batek Argentinan. Etxera eraman eta 5 egun igaro genituen bertan. Aitona euskalduna zuen.
- **Amets bat?**
  Orain arte amestutako guztia bete dut.


belardenda
Haritza
Mediku naturista kontsulta
Masajista
Legia 1, behea • BERA • ✆ 948 630652

ZALAIN JATETXEA
EGUNEKO MENUA ETA KARTA
Zalain Auzoa
✆ 948631106
BERA
Boda eta banketeak ematen dira

GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK
Altzate, 5 • ✆ 948630083 BERA

TOLDOS BAZTAN
TOLDOAK SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIRUA-ERROTULAZIOA
Eguzkitik babestekoak (elektriko edo eskuzkoak) • Toldo mugikorrak • Igerilekuetako sareak • Kamioentzako toldoak • Estutzeko uhalak • Aluminio, PVC, Egurra eta Seguridadekoak • Motorizatuak pertsianak altxatu eta jausteko • Kontraleihoak • Estoreak • Eulien kontrakoak...





☎ 948 63 10 03
Fax: 948 63 10 03
Alkaiaga Ind. •Baldrun, 8 • LESAKA - BERA
PERTSIANAK
ERA GUZIETAKOAK, MOTORIZATUAK, ESTOREAK





ERROTAZAR
Eztegara 3 • Tfnoa: 948 630 198 • BERA

ZELAIA Harategia
Agerra Auzoan

ERREPIDEAK

# Belateko tunela «betirako» moldatzeko bertze 600 milioi gastatu beharko dira

## Konpontze lanak egiteko, uztailaren 16tik irailaren 24ra itxiko da

TIP-TAPA

Belateko tunela uz-ilaren 16tik irailaren 24ra itxiko da. Bi hila-bete eta zortzi egun ho-netan hogeita lau orduz ariko dira lanean. Herri-lan Departamenduak Nafarroako tunel luze-enaren (2.968 metro) proiektuan eta obretan topatu dituen akatsak behin betirako moldatu nahi ditu.

Nafarroako Gober-nuaren ustez, behar-be-harrezkoa da moldake-ta lan hauek eki-tea. Geocontrol enpre-sak egindako ikerketa ikusi ondotik, Madrilgo enpresa honen arabe-ra, proiektuan eta obre-tan akatsak egin dira, «espero baino gehiago» erranlan Departamen-duaren ustez. Horre-gatik, 1997 eta 1998ko udaren, 1999ko maia-tzean eta 2000ko otsai-lan bezalaxe, molda-keta lanak egin behar-ko dira uda honetan, «horrek dakarren kostu ekonomikoarekin eta erabiltzaileei ekarriko dien kaltearekin».



ARTXIBOKOA

**Honelako irudiak ikusi beharko ditugu uda honetan ere, bi hilabetez.**

Tunela sistema austriar berriarekin eraiki zen. Geocontrol enpresaren txostenaren arabera, *«sistema hau modu egokian eginez gero kalitatezkoa da, baina kasu honetan ez da hori gertatu, tunela eusteko moduari dagokionez, behinipein»*.

Txostena egin duen enpresa berak egin du moldaketa proiektua, 600 milioi pezeta inguru kostako dena. *«Guztiz beharrezkoa da, tunelaren gainaldeko gainkarga prozesua lehenbailehen gelditzeko»*.

Orain arte tunelaren gainkaldean egin ziren moldaketa lanak, baina orain zola ere altxatu behar omen da. Akats guziak Belateko tunelean topatu dira, ez horrela Almandozkoan.

Hau dena ikusirik, Nafarroako Gobernuak Lain, Auxini eta Posusa enpresek osatutako UTE Belateri eskatuko dio moldaketa lanen 600 milioiak ordaintzea. Bertzenaz, epaitegietara jotzeko prest azaldu da.

EUSKARA

### *Errenta aitorpenean euskarari dirua zuzentzeko kanpaina hasi du Oinarriak erakundeak*

Nafarroako Gobernuaren hizkuntz politika salatzeko helburuarekin, errenta aitorpenean euskararendako dirua bideratzeko kanpaina hasi du Oinarriak erakundeak. Horretarako, lehenik, Oinarriak erakundearen kontura mila duroko transferentzia bat egitea proposatzen dute. Gero, aitorpena beti bezala egin beharko litzateke eta, ondotik, Nafarroako Gobernura zuzendutako instantzia bat idatzi. Honetan, Nafarroako Gobernuaren hizkuntz politika salatuko litzateke eta transferentzia egin denaren ziurtagiria ere bidali behar da.

Castillo Suarez, Bortzirietako euskara teknikariak adierazi digunez, *«ez da deus ilegala egin behar. Seguru aski ez dute dirua itzuliko, Oinarriak ez baita fundazio bat, baina salaketa ailegatuko zaie eta instantzia guziak erantzun beharko dituzte»*.

PIKABEA pinturak
Molinero drogerian pidetu
Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu
• Fatxadak
• Barne dekorazioa
• Pintura orokorrean
...pez 8 • ✆ 948 630240 - 948 631495 • BERA

bortzIRUDI
BERA
FOTOKOPIAK · ENKUADERNAZIOAK · PLASTIFIKAZIOAK · FAXA, E-MAILA · SKANNERRA
PAPERTEGIA · ARGAZKI MUNTAIAK
DISEINU GRAFIKOA · INPRENTA LANAK · SERIGRAFIA · ERROTULOAK · PUBLIZITATEA
Eztegara 26 behea · Tel.- Faxa: 948 63 15 21

SAROBE okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 699 - BERA

Alberto RETEGI
abokatua
Altzate 17
BERA
✆ 948 630 763

BERA

# Udal Haurtzaindegiaren proiektua onartu dute Udalak eta 3 eskolek

## Batzorde bat sortu da proiektua aitzinera eramateko

Asier GOGORTZA

Berako hiru ikastetxeetako ordezkariek eta Udaleko kideek egindako saiakerak bere fruituak eman ditu, eta urte hasieran hartutako akordioaren arabera Udal Haurtzaindegia eginen da Beran, 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzat eskola, alegia. Haur Eskola berria Udalak jarritako egoitza batean eginen litzateke, seguraski ere Toki Onako parkearen ondoko aldagela zaharretan.

Hasiera batean Udal haurtzaindegia heldu den ikasturtean bertan martxan jartzeko asmoa agertu bazuten ere, dagoeneko erabaki dute ez dela posible izanen, eta beraz, ikastetxe bakoitzak bere orainarteko eskaintzarekin segituko du. Horrela, Labiaga Ikastolaren haurtzaindegiak martxan segituko du eta Ricardo Baroja eta Jesusen Bihotza ikastetxeek 2 urteko gela eskainiko dute. Hemendik aitzinerako pausuak emateko 12 laguneko batzordea osatuko da, ikastetxeetako eta Udaleko ordezkariez osatua.



Asier G.

**Haurtzaindegia Toki Onako aldagela zaharretan eginen da.**

## Letoniako dantzariak

### *Maitzaren 4ean Vizbulite dantza taldearen emanaldia izanen da Kultur Etxean*

Dantza talde hau 1964. urtean sortu zen, eta gaur egun 250 lagunek osatzen dute. Letoniako folklorearen erakustaldia eginen dute Beran, nazioartean duten esperientzia erakutsiz. Arratsaldeko 8etan hasiko da saioa. Bertzalde, maiatzaren 4tik 20ra Kurdistango argazkiez osatutako erakusketa zabalduko da Kultur Etxean, "Izaki" ONGaren eskutik.



FLASH

### *Pailazoak*

Igande honetan, arratsaldeko 5etatik aitzinera Takolo, Pirrtx eta Porrotx pailazoen emanaldia izanen da Kultur Etxean.

### *"Onddo"*

Apirilaren 27an Ebalarko Herriko Ostatuan egin zuen lehen agerraldia herriko musika talde honek. Joseba Iraizoki kantari eta gitarrajolearekin batera Igor eta Iñigo Telletxea eta Ibai Gogortzak osatzen dute pop taldea. Lehendabizi zuzeneko kontzertuekin hasiko da "Onddo", bainan diskoa ere aitzindu xamarra dute.

### *2001eko Udal aurrekontua*

Ia 700 milioiko aurrekontua aurrikusi du Udalak urte honetarako, 693.544.012 pezeta hain xuxen. Honetatik erdia baino gehiago –377.143.170 pezeta– inbertsioak izanen dira, tartean Aspaceren erresidentziarako 8 milioi eta bertze 8 mioi Zahar Etxerako.

### *Argazki edo kartel lehiaketa*

2001eko Sanestebanbestetako egitarauaren azala izanen den kartela edo argazkia aukeratzeko lehiaketa irekitu du aurten ere Udalak. Lanak (kartelak edo argazkiak) maiatzaren 25a baino lehen aurkeztu beharko dira Udalean. Lehen sariak 25.000 pezeta eramanen ditu eta bigarrenak 20.000.

OKANE
HARATEGIA • URDAITEGIA
Kanttonberri 4, Tlnoa: 948630018 • BERA

Ortziraletan, 10etan
Mus Txapelketak
ERREKALDE
ostatua
Tfnoa: 948630259 - BERA

© 948 631462
Altzate 1 • BERA

LESAKA

# 370 milioi pezetako aurrekontua izanen du aurten Udalak

## Andra Mari Zahar Etxekoa, berriz, 51 milioikoa izanen da

Aitor AROTZENA

369.804.000 pezetako diru sarrera-irteerak izanen ditu aurten udalak, apirilaren hasierako batzarrean EA-EAJko zinegotzien aldeko botuekin behin-behinekoz onartutako aurrekontuaren arabera. EHk aurkako botua eman zuen, *«aurten ere aurrekontuen prestaketan kontuan hartu ez gaituztelako eta azken ordian jaso ditugulako»*.

Inbertsio handienei dagokienez, proiektu ezberdinak idazteko –tartean, Kultur Etxearena– 40 milioiko partida onartu da, mendian landaketak egiteko 23 milioi; jubilatuen egoitzan, eskolan, igerilekuan eta Zahar Etxean gasa sartzeko 10 milioi eta Salbatoreko ermita moldatzeko 6 milioi. Bestalde, Andra Mari Zahar Etxeko aurrekontua ere onartu zen, 51.610.000 pezetakoa.



Arrosaenta

**Tantirumairu ikastolaren 25 urteko ibilbidea biltzen duen liburua argitaratu da. Joan den ortziralean egin zen aurkezpena Herriko Etxean eta dagoeneko mila berrehun pezetatan erosten ahal da ikastolan eta herriko liburudendetan 120 bat orrialdeko liburu ederra. Argazkian lehendabiziko bi promozioetako ikasle batzuk.**

# Beti Gazte sokatira taldea

## *Aurtengoan ere lautik hiru irabazi ditu Euskal Herriko txapelketan*

Joan den urtean bezalaxe, lau txapeletatik hiru jantziz akautu du Beti Gazteko sokatira taldeak Euskal Herriko gorna gaineko sokatira txapelketa. Martxoaren 31n jokatu zen lehendabiziko finala Astigarragan, 600 kilokoa, eta iaz bezala Abadiño gailendu zen. Halere, lehia estua izan zuen Areso eta Beti Gazterekin, lehen fasean berdinduak gelditu baitziren.

Apirilaren 1ean, 680 kiloko finala jokatu zen Amurrion eta hemen lesakarrak izan ziren nagusi, tiraldi guziak irabazita.

Apirilaren 7an, Usurbilen 560 kiloko txapelketa irabazi zuen Beti Gaztek, tiraldi guziak bereganatuz. Biharamonean, Abadiñon jokatu zen 640 kiloko finala eta hemen ere herrikoak izan ziren garaile, nahiz eta Aresoren kontra kitarako tiraldiaren beharrean izan ziren.

Nafarroako lauekin batera, txapel uzta bikaina lortu du Beti Gazteko sokatira taldeak. Aurtengoan ez da Munduko txapelketarik izanen, baina lanean segitzen dute tiralariek.

FLASH

### *Lan istripua Aceralian*

Cipriano Lasaga Sansiñena 43 urteko lesakarra zauritua suertatu zen apirilaren 16an Aceralian izandako lan istripuan. Goizaldeko biak aldera deskarga elektrikoa jasan zuen eta zauriak egin zituen aurpegi eta eskuetan. Donostiako Arantzazuko Ama ospitaleko UCIra eraman zuten larri. Egunotan onera egin du Ciprianoren osasun egoerak.

### *Liburuaren Eguneko ekitaldiak*

Apirilaren 24an Peio Añorga ipuin kontalaria izan zen udal liburutegian, Liburuaren Eguneko ekitaldien barnean. Apirilaren 26an, berriz, *«1936-Gerra Zibila Euskal Herrian»* diaporama-hitzaldia eskaini zuen Iñaki Egañak.

### *Aberri Eguna*

Ikurriñari omenaldia eskainiz ospatu zen Aberri Eguna apirilaren 15ean herrian. Kalejira ere egin zen eta ondotik bazkaria Arranon.

### *Almandoz ASPEtik kanpo*

Jexux Mari Almandoz pilotari lesakarrari ez dio kontratua berritu ASPE enpresak. Hiru urtez talde honetan aritu ondotik, maiatzaren 1ean akautu zitzaion kontratua. Dena den, Garfe eta Besagainekin solasean aritu da Almandoz eta bietako batean segituko du profesionaletan.

XATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

IRU BIDE
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

ANA
Bittiria 41 • 948 637518 • LESAKA

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
948637573 • LESAKA

Marian Mendiberri
Estetika
LESAKA

ETXALAR

# Urte bat eta gero, «Correos»en erantzunaren esperoan

## Herriko Etxea konponduko dute, teilatua moldatu eta kanpotik pintatuz

**Joseba eta Nerea**

Zaharrak berri Correosen inguruan, oraindik ez baita erabakirik hartu. Eta ez da udala saiatu gabe gelditu delako, bide guziak agortu arte konponbideak bilatzen aritu baita. Alde batetik, *Junta Arbitral de Consumo* delakoan aurkeztu zuten baserritarrek beraien kexua eta apirilaren 10ean egin zen honen bista. Baserritarren ordezkari Herriko Etxeko bi zinegotzi, Patxiku Irisarri eta Manuel Leza joan ziren eta kaltetuen eskubideak defenditu zituzten Correosen antzinean. Baina honek ez zuen iritziz aldatu eta bere baldintzak mantentzen segitu zuen. Beraz, erantzuna epailearen esku dago.

Bertzetik, EAko parlamentariak mozioa aurkeztu zuen Madrilen. Sustapen Ministerioak bi teknikari bidali zituen Etxalarrera, hainbat datu bildu ondotik, afera honen inguruan informe bat prestatzeko. Kasu honetan ere, ez dugu informearen emaitzen esperoan gelditzea bertzerik.



Nerea MITXELTORENA

**Udalaren azken aktan agertutakoaren arabera, Udaletxearen teilatua moldatzea eta kanpotik pintatzea erabaki da. Honetarako, udal-arkitektuek bi aurrekontu aurkeztu dituzte. Lehenbizikoa 2.641.320 pezetakoa eta bigarrena 4.095.380koa (azken hau teilatuaren isolamendua kontutan hartuz). Udalbatzak bigarren aurrekontua antzinera eramatea erabaki du, teilatuaren iraupena luzeagoa izan dadin.**

### *Argindarra Antsolokuetan*

Antsolokueta auzoan etxe berriak egin dituztelako, eta zurdindegia dagoenez, argi-indarrarekin arazoak suertatuko zirela begibistakoa zen. Honi irtenbidea emateko, Udalak Antsolokueta parean, errekaren bertze aldean, transformazio-zentroa paratzea proposatu dio Iberdrolari. Honek, Udalak aipatutako tokira sartzeko arazoak izanen dituela erantzun du. Beraz, arazo honi zein irtenbide eman ikusteko dago oraindik.

FLASH

### *Bideak moldatzeko dirulaguntza*

Aurten ere baserrietako bideak moldatzeko dirulaguntzak mantenduko ditu Udalak. Jendea bizi den edo jarduera ekonomikoa duten etxeetara doazen bideak moldatzen segituko du. Bizilekuari dagokionez, eskatzaileak gutienez urte bat antzinetik herriko erroldan izena emana beharko du.

### *Iker Isasiren erakusketa*

Doneztebeko Iker Isasi artista gazteak bere lehenengo erakusketa aurkeztu du Herriko Ostatuan. 15 koadroz osatutako lanean tendentzia ezberdinak ikus daitezke. Ekaina bitartean zabalik egonen da erakusketa.

### *Kontzertua Herriko Ostatuan*

Azken aldian Herriko Ostatuak zenbait arazo izan zituen Guardia Zibilarekin, bertan kontzertuak antolatzeko orduan. Orain, arazo horiek moldatzea lortu du, Udalak kontzertu horiek baimendu baititu. Apirilaren 27an, adibidez, «Onddo» Berako talde berriak emanaldia eskaini zuen.


HARITZPE
JATETXEA
948635235
948635038
GOSARIAK • BAZKARIAK • BOKATAK

Egunero idekia. Asteazkenetan atseden eguna.

ETXALARKO HERRIKO OSTATUA
LEHEN JAUNARTZEKO MENU BEREZIA
Tomatea urdaiazpikoarekin
Langostinoak
Etxeko fritoak
Bakailaoa frijitua piper berdeekin
Bildots errea
Jaunartzeko tarta
Ardoa edo freskagarriak, kafea, kopa, puroa
3.500 pezeta
© 948635290


Lanchas
• Parketak - Tarimak
• Kutxillatzea
• Bernizatzeak
• Estaldura orokorrak
Bera © 94863073

IGANTZI

# Sei zaborrontzi berri paratuko dira egunotan herriko karriketan

## Igantziko dantzariak Hamabi Ordu Eskuaraz-era gonbidatu dituzte

Oskar TXOPERENA

Bortzirietako Mankomunitateak antolatutako kanpainaren barrenean, sei ontzi berri paratuko dira hurrengo egunotan Igantzin. Gauza jakina da birziklapena edo errezikladura gero eta garrantzi gehiago hartzen ari dela. Hemendik aitzinera 3 ontzi urdin berri izanen ditugu papera eta kartoia biltzeko eta bertze 3 plastikozko botilak, latak, esneontziak... biltzeko, orain arte birziklatzen ez zirenak.



Oskar TXOPERENA

**Joan den larunbatean ziren joatekoak Goizuetara Biltokik urtero antolatzen duen bidaiarako izena eman zuten 22 lagunak. Garai hobeak izan ditu ibilaldi polit honek, aunitzez jende gehiago joaten baitzen orain dela urte batzuk. 1996ko maiatzaren 25ean ateratako argazkia da hau, Igantzitik abiatzerakoan.**

### *Biltoki elkarteko garbitasuna*

Maiatzaren 16a arte egiten ahal izanen dira Biltoki elkartearen garbitasunaz arduratzeko eskaintzak. Gaur egun 80.000 pezeta ordaintzen omen dira hilabeteko eta interesatuak dauden guztiak lanaz informazio gehiago behar baldin badute juntako kideren batengana joatea bertzerik ez daukate.

### *Dantzariak*

Iaz bezala, maiatzaren 12an Elizondon ospatuko den "Hamabi ordu eskuaraz" bestara joanen dira Igantziko dantzariak, ilunabarrean Baztango dantzariekin batera dantzatzera.



PERTSONAIA

Xabi TELLETXEA

### *Txirrindulari trebea mendiak jausten*

Lehengo batean Joxe Mari Goiari buruz aritu baginen, orain bertze txirrindulari igantziar baten ibileren berri emanen dugu: Xabi Telletxea. Jakina denez, trebetasun haundia du mendiak bizikletaz jausten, eta azken bolada honetan urrutiko probetan dabila gainera. Errate baterako, Andorran "Snow-Bike" proban hartu zuen parte, seigarren postua lortuz eta orain estatu mailako "Open Maxxis"en dago sartuta buru-belarri. Pontevedra eta Castelloneko probetan ibili ondotik, joan den asteondarrean Bartzelonako probara joatekoa zen.



MARTIKO
*Gure baserrietako produktuak*
✆ 948 625016 • Fax 948 625036
Alkaiaga Industrialdea • BERA

CONSTRUCCIONES MECANICAS BERRIZKUN S.L.
Makinaria eraikuntza
Moldakatak eta dezpiezas
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, erraktifikadorak
Igantziko Bentak • ✆ 948 637579 • Faxa: 948 637508

ATM S.A.
AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.
• Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
• Enbalaketa elementuak eta flejeak.
• Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
• Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)
Igantziko Bentak • ✆ 948 637 411 • Faxa: 948 637 313

KOXKILA OSTATUA

Zarandia, 4 - LESAKA

ARANTZA

# Baserritarren egoera salatzen duen mozioa onartu du Udalak

## EHNEk aurkeztu zuen eta ahobateko sustengua jaso zuen

**Garbiñe eta Elixabet**

Azken hilabeteotan Nafarroan *behi eroen* kasu batzuk agertu ondoren, EHNE sindikatuak abeltzaintza sektoreak azken urteetako unerik latzena bizi duela uste du. Administrazioak afera honetan izan duen papera gogor kritikatzen du, baserritarrak egoeraren arduradun bailiran agertu baititu. Horregatik, eta egoeraren larritasuna kontuan harturik ondoko hitzarmena aurkeztu zuen Udalean: alde batetik, afera honetan inplikaturiko erakunde eta taldeekin elkarlana egiteko interesa. Bertzalde, Nafarroako Gobernuari kezka hau helarazi eta neurri ekonomikoak hartzea eskatuko zaio, baserritarrak baitira egoera larriena sufritzen dutenak. Akautzeko, globalizazio ekonomikoak eta Nekazaritza Politika Komunak nekazaritza munduan sortu dituen arazo sozial, ekonomiko eta kulturalei buruz, kezka azaldu zaio Nafarroako Gobernuari. Nekazaritza politika berri baten beharra ere azpimarratu dute. Udalak mozioa ahobatez onartu zuen.



Arrosco

**Apirilaren 10ean EHk deitutako greba egunean goizean eskolako sarrailak itxita eta patioan pintadak agertu ziren. Eskolako irakasle eta gurasoak arratsaldean udal batzar berezia eskatu zuten, goizean gertatutakoa gaitzesteko.**

FLASH

### *Zinegotzi aldaketa*

Amaia Telletxea EHko zinegotziak bere kargua uztea erabaki zuen eta bere ordez Xabier Altzu izanen da zinegotzi berria.

### *2000. urteko udal kontuak onartu da*

2000. urteko udal kontuak onartu ziren azken batzarrean. Kontu horien espedientea ikusi nahi duenak, jendearen aurrean izanen da hamabortz egunez.

### *Donato Larretxea*

aizkolari aranztarrak galdu egin zuen Nazabalen kontra apirilaren 22an jokatutako Urrezko Aizkoraren saioa. Igande honetan Olasagastiren kontra Idiazabalen jokatuko den saioa irabazi behar du, Azpeitiako finalean aritu nahi badu.


Zure inguruan klase guztietako insektuz (xomorro, zinaurri, armiarma, kukaiso...) eta arratoi-saguzko garbitu nahi baduzu, deitu.
Gu arduratuko gara honetaz.
Termita eta Polillen kontrako tratamendua

BERA DESINFECCIONES
✆ 948630155
BERA



EKAITZA
Hostala • Kafetegia
Gelak TB eta bainuarekin
Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 LESAKA



LESAKA

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:
• Astelehenetik asteazkenera 9-13etara eta 15-19etara
• Ortzegun eta ortzirailetan, 8etatik 15etara
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:
ARTEKARI, S.L., ✆: 948133328•133346. Faxa: 948133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitorpenak
- Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- Bideragarritasun planak



PAGOLA
TXISTORRAREN IZENA
✆ 948 630 054
Altzateko Plaza, 2
BERA

DONEZTEBE

# Liburutegi eta erakusketa areto berriak zabaldu ditu Udalak

## 250 milioiko aurrekontua izanen du aurten Udalak

Patxi Iriarte

Apirilaren 24an zabaldu ziren Alondigan (Foru Plaza 1) udal liburutegia eta ondoko eraikinean dagoen erakusketa areto berriak. Irekiera ekitaldian, udal agintariekin batera, lanak egiteko laguntza eskaini duten Nafarroako Gobernuko erakundeetako ordezkariak azaldu ziren. Principe de Viana erakundeko Liburutegi Sareak eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuak lan hauek egiteko laguntza eman dute, baita Cederna-Garalur erakundeak ere. Miguel San Miguelek adierazi zuenez, *«Doneztebek kultur aldetik esfortzu bat egin behar zuen. Liburutegia bazegoen baina ez baldintza onetan. Liburutegi berriak hiru gune ditu, bat ttikiendako, bertzea nagusiendako eta bertzea zerbitzu gunea: liburuzainaren lekua, informatika, faxa...».*

Erakusketa aretoa estreinatzeko, maiatzaren 8a bitarte zabalik izanen da Doneztebeko eskulangileen lanen erakusketa. Ausebio Arregiren laxoak, Carlos Pikabea, Iker Isasi, Cristina Juanotena, Jokin Duque eta Esther Fernandezen margolanak, Jose Luis Olaizolaren beirak, Jon Olaizolaren kaikuak eta Patxi Iriarteren argazkiak ikusgai izanen dira, egunero arratsaldeko 6etatik 8etara.

Hemendik aitzinera erakusketak egiteko egutegia prestatu nahi du Udalak. *«Lehenbizi herriko eskulangile eta artistei eskainiko diegu lekua eta gero kanpokoekin hasiko gara»* dio alkateak.

### 250 milioiko aurrekontua dute Udalak eta Musika Eskolak

Doneztebeko Herriko Etxeak udal eta Musika Eskolako Patronatuari dagokion aurrekontuak onartu ditu berriki, denera 249.369.371 pezetakoa. Zehazki, Udalak 235.345.932 pezetako diru sarrera-irteerak izanen ditu eta Musika Eskolako Patronatuak, 14.023.439 pezetakoa.

EAren aldeko 7 botorekin eta EHko zientzotzien kontrako bi botorekin onartu zen. Azken hauek beraien ezezkoa emateko, diru partida horretan euskararen alde deusere bideratzen ez dela eta aurrekontuak behar bezala eztabaidatu ez zirela argudiatu zuten.

71 milioi pezetako inbertsioak eginen dira. Musika eskola moldatzeko proiektu eramanen du aitzinera 9 milioi pezeta pasatxoko aurrekontuarekin, urteko inbertsiorik gogorrena. Mateo etxea moldatuko du Udalak, horretarako 6 milioi terdi erabiliz. Hiruteko azpiegitura planen barrenean, herriko hilerria handituko da, 5 milioiko aurrekontuarekin. Bertze hainbertze gostako da Osasun Etxeko zola berritzea.

Udalak frontoian behingoz aldagela egokiak jarri nahi ditu, lau milioi terdiko aurrekontuarekin. Hortaz gain herriko zabortegietan 4 milioi, eta Elizagibela auzoko parkean bertze 2 milioi eta laurden inbertituko ditu udalak.

Dirulaguntzen atalari dagokionez, aipagarriena Erreka kirol elkarteari emandakoa da, 25. Urteurrena ospatzen ari direla eta ekitaldi mordo bat antolatuko baitu. Hortaz gain kultur taldeen ekimenetarako 3 milioi pezeta bideratu ditu udalak. Nafarroako txirrindulari itzuliari ematen zaizkion 900.000 pezetak aipa daitezke.

Udalak 6 milioi pezeta zuzenduko ditu Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitatera.



Zaldua

**Miguel Ibarrola doneztebarrak atera du denboraldi honetako lehendabiziko izokina. 5,650 kiloko pisua eta 82 metroko luzera zuen, eta etxean jan zuen, senideekin batera.**




APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

LEGARRA

IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU

- Liburuak
- Papertegia
- Tabakoa
- Plastifikazioak egiten ditugu
- FAX publikoa
- Enkuadernatzeak
- Inprenta lanak

Enkuadernatzeak espiralean ere egiten dira

ITUREN

# Partehartze handia euskararen ofizialtasunaren aldeko egunean

## Ibintza kultur taldeak antolatu zuen apirilaren 21ean

Iban ISASI

Oinarriak euskararen aldeko taldearen ekimenei atxikiz eta Nafarroako Gobernuak berriki onartu duen euskararen dekretu murriztailearen kontra agertzeko Ibintza kultur taldeak apirilaren 21ean antolatu zuen Nafarroa osoan euskararen ofizialtasuna eskatzeko eguna. Irrati saio batekin hasi zen goiza: albisteak, horoskopo numerologikoa, dekretuari buruzko xehetasunak, Ibintza kultur taldeak aurten antolatu dituen ekintzen aipamena eta beste hainbat gai agertu ziren programazioan. Xorroxin Irratiak utzitako ekipoari esker hogei lagun inguru aritu ziren lan honetan, era guzietako kolaborazioak eginez. Bazkal orduan atseden ttiki bat egin ondotik, arratseko 8etan kalejira egin zen herrian. Joaldunek, eta bertako zein Sunbillatik etorritako trikitilariek egin zuten itzulia. Akitzeko, talo jatea egin zen Herriko Etxeko arkupeetan. Bertan txalaparta eta bertsoren bat edo bertze aditzeko aukera izan zen. Jende pila bat elkartu zen «Gure herrian euskara ofiziala» lemapean antolatutako egunean.



ARTXIBOKOA

**Azken urte hauetako ohiturari eutsiz Senperen bazkaria antolatu du Ibintza kultur taldeak Herri Urrats egunean.**

Bertzalde, Udalak Ibintza kultur taldeari bost urterako utzi dio Medikuaren Etxeko garajea, bertan bilerak egiteko eta artxiboa eduki ahal izateko. Ibintzak bere gain hartuko ditu lokalaren moldatze lanak: tarima jartzea, altzariak erostea eta bertze zenbait egokitze lan. Udalak Herriko Etxean zegoen eta erabiltzen ez den ordenagailua ere eskaini dio elkarteari.

### *Herri Urratseko bazkaria*

Ibintza kultur taldeak igandean Senperen ospatuko den Herri Urrats besta egunerako bazkaria antolatu du aurten ere. Izen emateko, betiko ostatuetara jo behar da eta mila pezeta utzi.

KIROLA

### *Hamaika bikotek hasi dute Doneztebeko paleta-goma txapelketa*

Larunbat honetan abiatu da Erreka elkarteak zazpigarren aldiz antolatutako paleta-goma txapelketa. Guzira hameka bikotek eman dute izena eta bi taldetan banatu dira: A taldean, Hita-Txoperena, Lopez-Pernaute, Agirre-Etxeberria, Larralde-Lakosta, Garaikoetxea-Etxebeste eta Larraiotz-Jaunena ariko dira. B taldean, berriz, Susperregi-Arrieta, Ibarra-Berho, Lusm[illegible] Apezetxea-Patxiku Ganboa, Juanito Apezetxea-Felipe Ganboa eta Mutuberria-Apeztegia ariko dira.

Bortz jardunaldiren ondotik, ekainaren 16an jokatuko dira finalaurdenak, 23an finalerdiak eta 30ean, San Pedro bestetan, final handia eta hirugarren postua erabakitzeko norgehiagoka.

ZUBIONDO JATETXEA
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

Ibarrola Mertzeria
Haurrendako arropa
0-14 urte
Parrokia kalea 6 - Doneztebe
948450463
Udako azken nobedadeak

IBINTZA
OSTATUA
948 450 114
IBINTZA LARRAIN

KAXULA
- Sukaldeko tresnak
- Opariak
- Pinturak
Albistur, 51 LESAKA
✆ 948 63 75 58

FUNERARIA ZERBITZUAK
Lesaka-Doneztebe
MALDAERREKA, S.L.
24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 948637404 • LESAKA
Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

ETXANDI TXOKO
jatetxea
Bazkari, afari eta gosariak
ITUREN / Tfnoa: 948 45 04 91

BAZTAN FUNERARIA
ORAIN TANATORIO ZERBITZUA
HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
EHORZKETA ZERBITZUAK • TRASLADOAK
Mendiurri, 1 • ELIZONDO • ✆ 948 580373 • 608 776176

ARKUPEAK ELKARTEA




ARTXIBOKOA

**Ehundaka lagun bildu ziren Arkupeak elkarteak hamargarren aldiz prestatutako erakustaldian.**

# Gimnasia erakustaldia eskaini zuten Iruñean erretiratuek

## Apirilaren 18an egin zen, hamargarren urtez

Itipi-ttapa

Apirilaren 18an elkartu ziren Iruñeko Anaitasuna kiroldegian Arkupeak elkarteak antolatutako gimnasia eta yoga ikastaroetan parte hartzen duten jubilatuak. Aurtengoan hamar urte bete dira Arkupeak elkarteak erakustaldi hau prestatzen duela. Arantza, Bera, Donamaria, Doneztebe, Elizondo, Etxalar, Igantzi, Irun, Leitza, Narbarte, Oitz, Sunbilla eta Urdazubiko 142 kirolari, gehien gehienak (132) emakumeak. Patxi Chocarro, Daniel Fioramante, Karmele Berridi eta Francisco Puertas irakasleen erranetara aritu ziren. Urdazubi, Etxalar, Elizondo eta Doneztebeko taldea zuzentzen duen Patxi Chocarrok erraten zuenez, *«ez dago adin mugarik, izatekotan gorputzak eta fisikoak jartzen ditu mugak»*.

Lanean aritu zirenekin batera, ikustera ere 500 bat lagun bildu ziren eta denak batera ederki bazkaldu zuten Gomizko jauregian. Bazkalondoa alaitzen Modesto akordeolaria aritu zen.

### *Mendiaren Eguna eta egonaldia Puente Viesgon*

Aitzinera begira, ez dira geldirik egotekoak Arkupeak elkarteko kideak. Maiatzaren 24an Mendiaren Eguna ospatuko dute eta Lizuniagatik Zalainera oinezko ibilaldia eginen dute. Ibiltzeko zailtasunak izan edo, bertzerik gabe, ibilbidea oinez egiteko gogorik ez dutenek, autobusa izanen dute eta ingurutik paseoa emateko modua eskainiko zaie. Zalainetik Etxalarko Bentara joanen dira autobusetan eta bertan bazkalduko dute. Bazkalondoan dantzaldia izanen da.

Bertzalde, uztailaren 9tik 17ra bazkideek Puente Viesgon (Kantabria) ur tratamenduak hartzeko aukera izanen dute. Gran Hotelean egonen dira. Izen ematea maiatzaren 2an egin behar zen.


**A D O S**

*Julian Izura Nuin*

Telefonoak: [illegible]

Parrokia 9, bajera • **DONEZTEBE**

**Bera.**
• 60 m²ko pisu bat salgai, erreforma behar du.
• 85 m²ko pisu bat salgai, bizitzen jartzeko prest.
• 120 m²ko pisua zaharberritzeko, erreforma osoa behar du. 2 apartamendu egiteko aukera.
• Estegiran 40 m²ko bajera salgai.
• Baserria salgai, bere terreno guziekin.
• Etxe elkar atxikia terrenoarekin salgai.
• 1.300 m²ko nabe-pabilioia salgai.
• Posteko plazan garajeak salgai.
• Endarlatsan etxe bat zaharberritzeko salgai.
**Lesaka.**
• Etxe elkar-atxikiak, egiten hasiak direnak.
**1. FASEA.**
• Nabe-pabilioia, 350 m²koa, errentan.
• Bajera bat salgai. Eroste ondoan.
• Terrenoa, hiru etxe egiteko, salgai.
• Baserri bat 50.000 m²ko lur eremuarekin salgai, bas etxebizitza egiteko moduko.
**Etxalar.**
• Harrizko etxea salgai, lur-eremuarekin.
• Lur-eremua, bi etxe egiteko, herrian bertan salgai.
• Baserri baten gerbara, lur puska batekin, salgai.
• Etxe berria salgai, lur-eremuarekin, bizitzen jartzeko prest.
• Baserri berria lur-eremuarekin salgai.
• Borda bat lur-eremuarekin.
**Arantza.**
• Lur-eremua etxeak eraikitzeko salgai.
• Pisua salgai. 7,5 miloi.
**Igantzi.**
• Baserria salgai, lur-eremu zabalarekin edo gabe.
**Sunbilla.**
• Harrizko etxe bat salgai, 100 m², hiru solairu, zoragarria.
• 57 m²ko bajera salgai, erabat prestatua.
• Baserria salgai, bere lur-eremuarekin.
• Etxe elkar atxikiak, modalitate librean edo babes ofizialekoak, salgai.
**Doneztebe.**
• Bajera salgai, 60 m², erabat prestatua. Elgorriaga aldera.
• Donamariako bidean, errepide ondoan, solairu bajera, 100 m².
• 5000 m²ko lur-eremua, bi etxe egiteko, salgai. Toki arras polita.
• Bajera batzuk salgai, herrian bertan.
• Doneztebe inguruan ostatu bat, etxebizitzarekin errentan eman nahi da.
• Bajerak errentan emateko, herrian bertan. Negozioa jartzeko aproposak.
• Frontoi zahar ondoan 200 m²ko bajera salgai.
**Ituren.**
• Borda prestatua, ura, argia, sillegabidea.
• Borda salgai.
• Lur-eremuak salgai, landetan, eraikitzeko.
• Lur-eremu eraikigarria salgai.
**Zubieta.**
• Etxe haundi bat salgai.
• Lur-eremu bat dohainik emanen da bajera baten truke.
**Donamaria.**
• Lur-zati eraikigarriak, 340 m²koak.
• Arras ongi dagoen txaleta salgai, lur-eremu batekin. Izugarrizko bistak.
• Baserria salgai, lur-eremu batekin.
• Borda bat errentan emateko.
**Igurin.**
• Lur-eremu pare salgai, eraikigarriak. Merke.
**Gaztelu.**
• Lur-eremu eraikigarria salgai. 3.000 m²koa.
**Urrotz.**
• Baserri zaharberritua lur-eremuarekin.
**Beintza.**
• Lur-eremuak. Herritik hurbil.
• Etxea salgai, baratze toki batekin.
**Labaien.**
• Lur-eremu eraikigarria, ongi kokatua.
**Legasa.**
• Lur-eremua salgai, eraikigarria.
• Pisu pare salgai.
**Mugairi.**
• Pisuak salgai.
**Elgorriaga.**
• Lur-eremu eraikigarria salgai, zelai-zelaia.
• Borda lur-eremuarekin salgai.
**Saldias.**
• Baserria salgai, lur-eremuarekin.
**Iruña, Irun eta Donostian,**
• Pisuak erosten-saltzen ditugu.
**Irurita.**
• Lur-eremua salgai, etxe bat egiteko, 1.000 m², zelaia.
• 7.000 m²ko belaga salgai.
• Etxe berria salgai.
**Lekaroz.**
• Harrizko etxea, herrian bertan salgai.
• 1.500 m²ko lur-eremua eraikigarria salgai.
**Elizondo.**
• Pisu polita Santiago karrikan. 120 m², hiru aldetara ematen du.
• Pisua salgai, ia berria, 90 m². Ongi dago.
• Pisu berria bajerarekin herrian bertan.
• 5 pisu karteran salgai.
**Erratzu.**
• Borda batzuk salgai.
**Otxondo.**
• Baserria salgai, inguru zoragarrian.
**Arizkun.**
• Lur-eremu eraikigarria salgai.
**Gartzain.**
• Lur-eremu eraikigarria salgai.
**BATZUK.**
• Karteran aukera gehiago dugu.
• Kontratoak egiten ditugu.
• Bordak, baserriak erosi nahi dira, ez du inporta egoera eta tokiak.

**Baztan-Bidasoa.**
• Eskaera handiagatik, pisuak, baserriak, etxeak, lur-eremuak, errotak... behar ditugu.

GOIZUETA

# Belate pilota taldeen elkarteko kide da Umore Ona taldea ere

Udaberriko Sarian parte hartuko du, baita betiko Herriarteko txapelketan ere

Esteban AROTZENA

Sortu berria den Belate izeneko pilota talde elkarteko kide da herriko Umore Ona ere, gure herrialdeko beste 26 klubekin batera. Nafarroako Pilota Federaziorako hauteskundeen arauekin ados ez ziren elkarteek sortu dute Belate, eta bertan dauden kluben kopurua ikusirik harrera ederra izan duela esan daiteke.

Betiko Herriarteko txapelketaren antza duen Udaberriko Saria izeneko lehia martxan jarri du dagoeneko Belatek, eta Altsasu, Zizur eta Erro-Aezkoaren kontra jokatu beharko du Goizuetak. Dena den, Herri arteko ofizialean ere izena emanda daude herriko pilotariak, eta maiatzaren 27an sartuko dira txapelketa honetan, seguru aski Leitzaren kontra. Honetaz gain, Sortzen erakundearen bidez antolatutako txapelketa ere martxan da eta Goizuetako Pilota Eskolako prebenjamin, benjamin eta alebingaztiak bertan ari dira jokatzen, emaitza ederrekin gainera.



ARTXIBOKOA

**Juantxo Apezetxeak ez du aurten seguru aski Herriarteko txapelketan jokatzerik izanen, baina pixkanaka bere onera heldu da eta orain hori da garrantzitsuena.**

### *Truk txapelketa*

Mari Karmen Tomasenak eta Iñaki Rodriguez ama-semeek eskuratu zuten apirilaren 21ean Umore Onak antolatzen duen truk txapelketako aurtengo edizioko garaikurra eta 10.000 pezetako saria. *Txumi* eta Jabier Oskoz izan zituzten aurkari finalean. Garaikurrak eta 6.000 pezetako saria jaso zuten bi hauek.

ARESO

# Industrialdea handitzeko garo lekuak hartu nahi ditu Udalak

Alegazioak aurkezteko epea maiatzaren 10ean bukatuko da



Juana Mari Saizar

**Ikurriñari omenaldia eskaini zioten dantzari txikiek Aberri Egunean.**

Juana Mari SAIZAR

Industrialde ingurua handitu egin nahi da eta horretarako garo-lekuak harrapatzen ditu. Hauen nagusiekin hitzegin du Udalak, ea zenbateko ordainarekin konpontzen ahal diren. Alegazioak aurkezteko epea maiatzaren 10ean bukatuko da.

### *Aberri Eguna*

Pazko igandean Aberri Eguna ospatu zuten herritar batzuk. Plazan kontzentrazioa eta ikurriñari omenaldia egin ondoren, herriko dantzari txikiek ere ikurriñari dantzatu zioten. Komunikatua irakurri zen eta herrian zehar kalejira egin zuten. Ondoren, bazkaria egin zuten Pake-Toki elkartean.

### *Udaberriko Bira*

Apirilaren 29an Udaberriko Biraren barnean, Etxarriko abesbatza etorri zen elizara.



**LEITZA**

# Udal igerilekua hartzeko eskaintzak lehenbailehen aurkeztu behar dira

Maiatzaren 12an bukatuko da horretarako epea

Joseba AZPIROZ

Udalak, igerilekuen ustiapenaren bandoa argitaratu du. Aurtengo denboraldia ekainaren 1etik irailaren 15a bitarte izanen da. Lizitazio prezioa librea da eta proposamenak aurkezteko epea, maiatzaren 12an, eguerdiko hamabietan bukatuko da.



Joseba AZPIROZ

**Liburuaren eguna zela eta Herri-liburutegiko liburu batzuk plazako azokan izan genituen ikusgai. Gainera, astelehen arratsaldez, Patxi Hernando kontu kontalari liburutegian haritu zen. Eskolan berriz, beste hainbat ekitaldiren artean, Leitzarrak idatzitako liburuen erakusketa egin zen. Berrogeita lau liburu bai omen dira.**

### *Bukatu da zine denboraldia*

Apirilaren 8an bukatu zen zinema denboraldia. Denboraldi honetan,eta larriei eskaintzako emanaldiei dagokionez, 1.372 sarrera saldu dira. Hauetatik, 682 ikusle ostiraletako emanaldietara joan dira eta 690 igandetan. Emanaldi bakoitzeko batanaz besteko ikusle kopurua 31 lagunena izan da. «Gladiator» pelikula izan da jende gehien erakarri duena (212 lagun bi emanaldietan). Haur eta gaztetxoei berriz, hiru pelikula eskaini zitzaizkien Eguberrietan eta bat ihauterietan eta 251 lagunek ikusi zituzten.

### *Egur loteak eskatzeko epea*

Sutarako egur eta gaitz egur loteak eskatzeko epea maiatzaren 31ren eguerdiko ordu bata artekoa da. Gaitz egurra markatzeko ez da nahikoa izanen ezintasunaren ziurtagiria aurkeztea. Benetako ezintasuna dutenei besterik ez zaie markatuko gaitz egurra. Egurraren truke, auzolanean egun bat egin beharko da. Aurreko urteko lotea atera ez duena ez da zozketan sartuko.

**PERTSONAIA**

**Oinatz BENGOETXEA**

### *16 urterekin Asegarceri hitz emana*

Asegarce pilota enpresak Oinatz Bengoetxea, 16 urteko aurrelari leitzarra fitxatuko duela jakinarazi du. Bengoetxeak Aurrerarekin jokatzen segituko du enpresak profesionaletan debutatzeko aukera eman arte, 2002. urteko uda baino lehen. Bengoetxea VI 1984-ko abuztuaren 8an jaio zen eta afizionatuetan bere mailaren berri eman du. Neguko Cajanavarra txapelketan nagusitu zen eta gazte mailako GRAVN txapelketan ere ederki ari da. Banaka nahiz binaka aritzeko dohain izugarriak ditu.

## Greba Sarrion

### *Greba mugagabearen alde azaldu dira Sarriopapeleko langileak*

Sarriopapel y Celulosa S.A. enpresako langileak apirilaren 24tik aurrera greba mugagabea hastea erabaki zuten. Egindako batzarrean, 150 langileek greba mota horren alde eman zuten botoa eta 110ek aldizkako grebaren alde. 61ek ez zuten grebaren aldeko botorik eman. Langileen eskaeren aurrean (urteko 16 lanordu gutxiago eta soldataren igoera % 1,5a IPC delakoaren gainetik), enpresak urteko lau lanordu gutxiago eta aurtengo %0'8, eta datozen bi urtetako gutxienez %0'5 IPC delakoaren gainetik eskaintzen du (IPC puntu bakoitzeko %0,25 eta gutxienez %0,5 urteko).

ZALDUBI
Martin Lizasoain Adansa
• SUKALDE MOBLEAK
• BAINU MOBLEAK
• MANPARAK
Zaldubi Poligonoa • ✆ 948 580 562 IRURITA



BULDAIN
agentzia inmobiliarioa
Amazabal 37 (eskola ondoan) • LEITZA (Nafarroa)
✆ 948 510534 / 649 476615

BAZTAN

# Maiatzaren 12 eta 13an ospatuko da aurtengo Hamabi Ordu Eskuaraz

## Sorginkeriari buruzko antzerkia eginen da igandean

TTIPI-TTAPA

Aurtengoarekin seigarren urtea beteko du Hamabi Ordu Eskuaraz ospakizunak eta beti bezala ekitaldiz betetako egitaraua prestatu da maiatzaren 12 eta 13rako.

Larunbatean, Hamabi Ordu Lasterka eginen dira Lekarozko futbol zelaian, goizeko 7etatik arratsaldeko 7etara. Eskualdeko kirolari, ikasle, irakasle, guraso eta nahi duen jende guziak hartzen du parte euskararen aldeko lasterketa honetan. Arratsaldeko 7,30etan dantza jaialdia izanen da Elizondoko pilotalekuan.



ARTXIBOKOA

**Larunbat arratsaldeko dantza jaialdia eta igande eguerdiko antzerkia izanen dira Hamabi Ordu Eskuaraz-eko ekitaldi nagusiak.**

Igandea izanen da egun handia. Goizeko 10etan argi soinuak izanen dira Baileko herri guzietan txistulari, gaitero, akordeolari, txaranga eta bertze musikariekin. Gan den urtean bezala, antzerkia izanen da Hamabi Ordu Eskuaraz ospakizunaren ekitaldi nagusia. Hamabortz antzezle eta 170 extra baino gehiagok hartuko dute parte sorginkeriari buruzko lan honetan. Bertze toki aunitz bezala, Baztan ere inkisizioaren menpe izan zen. Gidoia pertsonaia eta data historikoetan oinarritzen da, baina kontakizuna gidoi-egilearen irudimenaren emaitza da. Eguerdiko 12etan Elizondoko plazan eskainiko da emanaldia.

Ondotik, Merkatuko Zelaian zikiro jatea eginen da.

Arazo ekonomikoei aurre egiteko auto bat zozketatuko du Hamabi Ordu Eskuaraz Elkarteak maiatzaren 13an. 500 pezetatan salgai dira txartelak Elizondoko denda eta ostatuetan.

FLASH

### *Liburu xelebreen erakusketa*

egin zen apirilaren 23an Lekarozko Bigarren Hezkuntzako Institutuan. Ikasleek ebatzi eramandako liburu za harrak nahiz bitxiak izan ziren ikusgai Liburuaren Egunean.

### *Arraiozen idatzi den «Mandoa» gidoia zinera*

Alberto Gorritiberea Etxabe, 31 urteko zi maiarrak Arraiozen egi zuen sei hilabeteko egonaldian idatzitako «Mandoa» gidoiarekin luzemetrai bat egiteko aukera handiak daude. Dagoeneko bere buruz erdi arraioztartzat jotzen du Albertok eta gidoia zinera eramaten badute, aurre estreinaldia Arraiozen eginen dela segurtatu du. Orain arte laburmetraiak eta telebista anuntzioak egi nak zituen Gorritiberea.

## Udaberriko Feria

### *Ez zen aziendarik izan Plazan*

Urteko eta mendeko lehen azienda ferian, Udaberriko Ferian, ez zen aziendarik agertu Merkatu Plazara. Dena den, plazara agertu zirenek Nafarroako Aretzean duten konfidantza erakutsi zuten. Carlos Ibarrondo elorriotarrak eta Remigio Lizasoainek burduntzian erretako aretzea ederki jan zuten.

Gasna lehiaketan, gan den urtean bezala, Mendialdeko Felisa Irungarai eta Urruskako Josep Mihura suertatu ziren irabazle.



BAZTAN
ALTZARIAK
zurgindegia
- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Hantz, gaztan eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tlnoa: 45 23 74 - IRURITA

IPINGI
ZATOZ ETA IKUSI
Santiago 88, ✆ 948 580928
ELIZONDO

EZTAI eta KOMUNIOETAKO ARROPA BEREZIAK ETA OSAGARRIAK

BAZTAN

# Udal ordenantzak berritzea erabaki du Junta Generalak

## Elizondo-Irurita errepideari eman beharreko irtenbideaz ere solastu zen

ITŢ-TARA

Baztango Junta Generalak herria arautzendituen ordenantzak berritzea erabaki du. Lehendabiziko ikerketa Tomas Urzainkik egin du eta juntakideek azterturik eginen dute, behin betiko ordenantzak onestatu aitzin. Gaur egungo ordenantzak 1967an onartu ziren eta duela 24 urte egin ziren azken aldaketak. Ordenantza hauek berritzea behin eta berriz eskatu dute juntakideek.

Gainera, Ana Mari Marin Elizondoko alkateak egindako eskaerarekin bat eginez, eraikuntza bereziak babesteko akordioa ere onartu zen. Azken aldi honetan errotak, kisulabeak, labaderoak eta gisako eraikinak pribatizatzen ari direla eta bere kezka azaldu zuen Marinek. *«Herriarendako galera konponezina da hori. Arkitektura hori mantentzea gure ondare artistikoa eta memoria kolektiboa mantentzea da».*

### *Elizondo-Irurita errepidea*

Irurita eta Elizondo artean N-121-B errepidea zabaltzeko Patxi Peña Gartzaingo alkate ohiak egindako eskaria aztertu zuen Junta Generalak. Gai honen inguruan proposamen ezberdinak aztertu ziren. Laister saihesbidea egin gogo dela kontuan hartuz, Ana Mari Marinek bide hori pertsonendako berreskuratzea proposatu zuen. Jose Mari Ursuegi Gartzaingo alkateak ontzat eman zuen Marinen proposamena eta astiarekin aztertzeko gaia dela erran zuen: *«Zuhaitzak bota eta ez da arazoa moldatuko»*. Oinezkoendako arazoak ere badirela onartu zuen Ursuegik.

Patxi Oiartzabal Baztango alkatea ere irtenbide osoaren alde azaldu zen. Saihesbidea egiterakoan trafikoa aunitz murriztuko dela jakinik, proposamen ezberdinak aztertuko dira eta laguntza eskatuko zaio Nafarroako Gobernuko Herrilan Departamenduari.

Azken aldian euskararen alde egindako ekitaldiei ere bere elkartasuna adierazi zien Junta Generalak, kasik ahobatez. UPNko zinegotziak abstenitu egin ziren. UPNko zinegotziek euskararen alde daudela erran zuten, *«baina Baztango euskararen alde, ez batuaren alde»*.



Xabi BALLARENA(r)k utzia

**Californiako San Franciscon erratzuarrek apirilaren 15ean egindako besta ageri da argazkian. 85 lagun inguru bildu ziren besta izugarria eginez (musika, euskal kantak, dantzaldia eta guztiz). Ageri den bezala, sorterritik urrun izan arren gogoan izan zuten, Erratzu 5.720 kilometrora zutela gogoraraztten zien kartelak adierazten duen bezala.**

# Igerilekua nahi dute Oronozen

Oronozen igerilekua egiteko gogoa erakutsi zuen herriko batzarreak. Proiektuaren zirriborroa egina dago eta Florentino Goñi alkatearen ustez, *«bulkada handia emanen lioke turismoari. Elizondokoan jende sobera biltzen da eta Bertizera etortzen diren turista aunitzek piszina ba ote dagoen galde egiten dute. Ez dagoenez Hondarribira edo igerilekua edo hondartza duten herrietara alde egiten dute»*. Igerilekua Nafarroako Gobernuaren lur-eremu batean eginen litzateke. Alkatearen ustez, *«lekurik egokiena da, Bertizko Jauregitik arras hurbil, doi-doi parkera doan zubiaren azpian, baina Oronoz-Mugairiko lurretan»*. Oronozko su-hiltzaileak ere igerilekuaren alde azaldu dira, entrenamenduak herrian berean egiteko aukera emanen baitie.

Orain Baileko Udatari Nafarroako Gobernuan egin beharreko tramiteak egitea eskatuko dio Oronozko batzarreak. Eskari horren arabera, gastuak Nafarroako Gobernuak hartuko lituzke bere gain.

Carlos Garaikoetxea Etxenike
abokatua• aseguru orokorrak
✆ 948 581468 • 948 580433 (etxekoa)
Frantziarako etorb. 12 • Ameztialde 3B • ELBETE

MENDI OSTATUA
Santiago 25 - ✆ 948 580313
ELIZONDO

MENDIALDE Jatetxea
AMAIUR • ✆ 948453060

JATETXEA
✆ 948 580101
Santiago 1
ELIZONDO
Galarza

ZUGARRAMURDI

# Ehun urte bete zuen martxoaren 12an Kapondegiko Bordako Francisca Etxenikek

## Argindar transformadoreak jarri dira Azketa, Lapiztegia eta Bentetako bidean

MARGARI ETA KORO

Gan den martxoaren 12an Francisca Etxenike Goienetxek 100 urte bete zituen. 1901 urtean Kapondegiko Borda baserrian sortu zen eta ezkondu ondotik herria utzi zuen. Geroztik 8 seme-alaba, 29 iloba eta 23 birloba izan ditu. Gaur egun Arrietan bizi da, herri hortako apeza den bere semearekin. Ehun zorion luze-luze eskeintzen dizkiogu!!



DIARIO DE NAVARRA

**Kapondegiko Bordako Francisca Etxenike, bere seme-alabekin batera, ehungarren urtebetzeko ospakizunean.**

### *Transformadore berriak*

Berriki finitu dira elektrizitateko transformadore berriak paratzeko lanak. Lehengo transformadorea deuseztatu ondotik bertze hiru berri jarri dira (Azketan, Lapiztegian eta bentetako bidean) eta orain arte airez gaki ziren hariak lur azpian sartu dira. Lan guzti hauek 4 milioi pezeta gosta dira bainan Herriko Etxeak Nafarroako Gobernutik ehunetik 70eko dirulaguntza hartu du.

### *Aste Saindu animatua*

Bertze urte bat[e] Aste Saindu animat[u] izan dugu. Karrik[etan] jendea barra-barra ib[ili] da eta giro pulita ku[...] da herrian barna. Be[...] bezala, lezeak izan di[...] ra turistek gehien bi[si]tatu duten lekua, bain[a] inguruko landa-etxe, [...] tetxe eta ostatuek e[re] ederki somatu dute b[i]sitarien etorna.

Gan den urtean b[a]zaltsu ibili omen dira b[i]sitariak, bainan orta[...] gunean usaian bain[o] gutxiago sumatu zi[ren]. Valentzia eta Katalun[ia] aldetik turista fran[ko] etortzen dira eta bi k[o]munitate hoietan orta[...] guna besta ez iza[te]gatik ote zen zioten[...]

KULTURKARI
Inprenta lanak egiten ditugu
• Kartelak
• Boletoak
• Faktura talaiak
• Bisita txartelak
• Aldizkariak
• ...
Behar duzuna momentu batean eginen duzugu, zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin prezioik hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!
✆ 948 63 11 88

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE
ANZABAL
AGENTZIA
■ Zurich Aseguruak
• Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
■ Lan aholkularitza
• Nomina eta Aseguru Sozialak
■ Aholkularitza fiskala
• Errenta Deklarazioak, IVA...
■ Inmobiliaria
• Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
■ Gestoria
• Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak
Santiago 12 • Tfnoa eta faxa 948 580804 • ELIZONDO


Maderas GOMEN
☛ Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
☛ Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
☛ Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
☛ Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...
Zaldubia Poligonoa • IRURITA • ✆ 948 580 6[..]

SENPERE

# Herri Urrats hemezortzigarren aldiz ospatuko da igandean aintziran

Gure arbasoen kantu xaharrak biltzen dituen liburua plazaratu berri da

Franck DOLOSOR

Herri Urrats igande untan, maiatzak 6, ospatuko da. Seaska Ikastolen Elkarteak antolaturik. Eskuararen ofizialtasuna eta euskal irakaskuntzaren ezagutza galdeginen da. Aldi batez gehiago. Igande osoan aintziran animazio frango izateko da: haur kantu txapelketako partaide, hajasotzaile, dantzari eta kantadunekin. Taldeen artean, Senperen izanen dugu Zapozain, Trikitiake, Xitoak, Otsoak, Selektah Kolektiboa, Doktor Deslai eta Imunzo eta Beloki. Urtero bezala, milaka euskalzale espero dira aintziraren inguruko ibilbidean ehunaka izanen dira edantegietan, garbitzetan eta bertze lanetan ariko diren laguntzaileak.



STUDIO DE LA NIVELLE

**Korrikaren herritik pasatzea hunkigarria gertatu zen, jende ainitz bildu baitzen goizeko 8etan.**

### Aldaketak Turismo Bulegoan

Herriko bozen emaitzek aldaketak ekarri dituzte Turismo Bulegoan. Peio Aincik Robert Faivre ordezkatuko du erakunde horren lehendakaritzan. Jeanne Bereau da president orde berria, Kattin Berhouet idazkaria eta Denis Carlier diruzaina. Alde egin aintzin, Robert Faivrek bilan ona egin zuen bere lanaz, oroitaraziz elkartan interesgarria egin zela Donibane Lohitzuneko herriarekin, gure herria aipatua izan dadin turisma saloin frangotan.

### Herriko kantu xaharrak liburuan bilduak

Herriko kantu xaharrak biltzen ditu Eusko Ikaskuntzak eta Oxtikenekoak kultur elkarteak atera berri duten «Senpereko kantu zaharrak» liburuak. Testu interesgarriak bildu dituzte, herrian eta inguruan kantatzen direnak. Kantuen airea zoin den ageri da, baita kantu emaileen potreta, Oxtikenean eta Inarrean iragan ziren kantu bazkarietan hartuak. Herritar frangok duen aberastasuna agertzea izan da liburu hunen egileen nahia.

### Lapurdiko xingar xukategi berria

Jateko txarraz maiz mintzatzen bada azken aldian, kalitatearen aldeko lana ez da ahantzi behar halere. Kalitatezko mozkinak egiteko xedearekin Lapurdiko harakin andana bildu da xingar xukategi berria muntatzeko Balonako hiltegiaren ondoan. Hantxe xingarrak xukatuko dituzte, bai eta mozkinak prestatuko. Sortzaileen artean dugu herriko Pantxoa Berho eta beraz bere saltegian izanen dira aski fite xukategi berri hortatik aterako diren xingarrak bertzeak bertze.



PERTSONAIA

**Pepe ESTAYNOU**

*Omenaldia eskaini zaio luzaz herriko langile izandakoari*

Apirilaren 21ean omenaldia egin zitzaion Herriko Etxean Pepe Estanyouri, luzaz herriko langile izan denari. Orain erretreta harturik familiarekin pausatzeko denbora izanen du hemendik goiti.

Okindegia Jatetxea

Uxoa

- Okindegian
- Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
- Jatetxean
- Menua eta karta (asteburuetan)
- Espezialitate parrilan erretako jakietan



*Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labean errea. Goxo-goxoa!*

MAGNETOTERAPIA NATUROPATIA

ONDORIOETATIK INDARTZEKO:

- Diabetia
- Asma
- Buruko mina
- Oineri izerdia
- Larru azaleko alergia
- Zitoreak
- Prostata, etab...

IKUSMENAREN BERRESKURATZEA
- Miopia
- Bista alfertua
- Estrabismoa
- Begi lausoak-katarata

GIHARRE ARAZOAK
- Bizkortzea
- Artritis, erreuma
- Artrosia, Lunbalgia
- Bihurdurak, etab...

KONTSULTA ORDUTEGIA
Goizez 9etatik 13etara. Arratsaldez 3-7etara. Ordua eskatu

✆ (943) 62 30 55 San Marcial, 7-4 IRUN

AZKAINE

# Anderedena Mari egunean hasi eta asteburuan bukatuko dira bestak

## Besta taldea berritua izan da eta lehen bilkura egin zuen

**Pelo eta Eneko**

Egin behar zen, egina izan da: besta taldea berritua izan da. Arazo batzuen gaindi pasatzeko, elkarte berri bat sortua izan da, deitua "Festivités d'Ascain - Azkaingo bestak".

Elkarte horren lehen bilkurarentzat (apirilaren 17an) hogoi ta hamar bat gazte edo ez hain gazte bildu dira. Haien buru, lehendakari berria, Jérôme Laduche hor zen. Pierre Clausel Herriko Etxearen erabaki batzuen berri emaitera etorria zen. Lehengo besta taldean ziren gazteak hor ziren, eta haiekin hamabortz bat berri, etorriak gauzak aldatzeko. Kondatuz ez direnak oraingoan etorri, baina laister hor izanen direnak, besta talde berriak berrogoi bat partaide ditu.

Lehen bilkura huntan, erabaki guti hartua izan da. Lehentasuna iazko bilanari eta ideia berrieri emana izan da.


ANGELA
**Bestak prestatzen hasteko elkarte berri bat sortua izan da.**

Orai, ideiak sakondu behar dira, arazo batzu konpondu, erabakiak hartuak izanen dira heldu den bilkuran. Ikusiz nola gauzak aintzinatzen diren, beharbada sorpresa onak izanen dira Azkaindarrentzat uda huntan...

**BESTAK ABUZTUAREN 15EAN EDO ASTEBURUAN? BIETAN!**

Azkaingo besteri buruz, gatazka bat bazen, maiz entzuna herriko ostatuetan edo hauteskundeen kanpaina denboran: noiz egin behar dira bestak? Abuztuaren 15ean, Anderedena Mari egunean, edo asteburu batean lan egiten dutenak etor daitezen? Erabaki bat hartu behar zen. 2001 urtean, Azkaingo bestak hasiko dira abuztuaren 15an... eta bukatuko asteburuan!! Uda huntan, besta 15an (asteazkena), 16an (ortzeguna), 17an (ortzirala), 18an (larunbata), eta beharbada igandean.

Besta taldea deneri idekia da, elkarte berri huntan sartu nahi duena beti ongi etorria izanen da.

Azken bilkura larunbat goiz huntan, apirilaren 28an egin dute Jauregian.



PERTSONAIA

**Sébastien GONZALEZ**

***«Biziki pozik nabil eta datorren urterako gehiago prestatuko naiz»***

Sébastien Gonzalez-ek errexki galdu du Mikel Goñiren kontra 22-5. Bakarkako lehen mailako xapelketan ari zen eta partida hortarat arribatu aintzin bertze bi pilotariren kontra irabazi zuen.

Partida hastapenetako zainetan, bekainak makurtuak eta bere buruaz ez zela sobera segur somatzen ahal zen. Hirugarren tantoan jadanik eskuko mina hasi zaio Sebastieni eta geroz eta gehiago sofritzen ikusi dugu. 11 tanto sakean galdu ditu. Behin baino gehiagotan bere burua lasaitzera entsaiatu da, bainan alferrik.

ETBko komentatzaileak erran zuen: *«Pena da Sebastien Gonzalezek zonbateinoko maila eman dezaken ikusi ezina eskua era bat ttikitu zaiolako»*. Sebastienek berak azpimarratu zuen Goñi biziki ongi aritu zela. Bainan bere azken hitzetan baikorra agertu zen azkaindarra: *«Nere aurtengo helburua lehen partida irabaztea zen. Bigarrena ere irabazi dut. Mikel Goñik izen haundia du, biziki serios aritu da. Biziki pozik nabil eta datorren urteko gehiago prestatuko naiz»*.









SARA

# Pleka trinketeko bosgarren pala txapelketa apirilaren 7an finitu zen

## Bigarren Belote txapelketa berriz apirilaren 20an bururuatu zen

...ia Mari eta Fred

Apirilaren 7an, la-...batarekin, pleka trin-...eko V. pala txapel-...eta finitu zen. Denetara 12 bikote (hamabi nes-...enak) aritu dira lehian, ...rtz multzotan bana-...tik. Nesketan Aramen-...i eta Doihenart garai-...e atari ziren joan den ...rteko txapelduneri, ...ndaburu eta Arribillaga.

Lehen mailan, iaz be-...zala, Bergerot eta ...meztoik irabazi zuten, ...urten Ladebat-Lizardi ...bikoteari.

Bigarren mailan, A ...multzoan Sorhuet eta ...tezuetek irabazi zieten ...Dasagasti eta Lamo-...heri. B multzoan Salha ...eta Duotek irabazi ...Ledesma eta Chaconi.

Hirugarren mailan, ...astorza eta Urzulaieta, ...Jimenez eta Ondikolari ...nagusitu zitzaien. Aipatu ...behar da Ondikola fina-...letara allegatu den sa-...rtar bakarra izan dela, ...bertze guziak inguruko ...herrietakoak baitziren.

Pilotari gehienek zi-...kiro jatean ere parte har-...tu zuten, erakutsiz go-...ren afizioa bestari ere!

### II. Belote txapelketa

Herriko Etxeko edan-...tegiko belote txapelke-...ta apirilaren 20an buru-...ratu zen; denetara 15 ...bikotek parte hartu zu-...ten bigarren urteko an-...tolatu den lehiaketan.

Bigarren aldiko ...ere, Manu eta Sandrine ...Agerrek irabazi zuten sari nagusia; aurten bi lagunentzat bazkari Ibardingo Benta Berrin.





**Lehen mailan, Ladebat-Lizardi beltzez, François Matxikote juja, Ameztoy-Berjerot txapeldunak xuriz eta Henri Dutournier plekako nagusia. Neskak, Doihenart-Arramendi txapeldunak gorriz, Marie Pierre Iribarren antolatzailea eta Indaburu-Arribillaga xuriz.**

Ondoko sarituak, final haundian Mikael Vella eta Beñat Loustaunau; Claude Etxegarai eta Alain Arruferia; Xavier Tapia eta Chirstophe Sahastume izan ziren. Kontsolagarria, Christine Lissayou eta Céline Guridik eraman zuten, bigarren postuan Christophe Pradine eta Nicolas Jorajuriari utziz.

### Euskal Idazleen Biltzarra

Bazko Astelehenez 700 pertsona baino gehiago hurbildu dira herriko polikiroldegian, Idazleen Biltzarra zela eta. Denbora txarra izanagatik, antolatzaileak pozik agertu dira ekitaldiak ukan arrakastarekin. Animazio guziak ongi iragan dira eta gela mukurru betea zen Ur Apalategiren mintzaldiarentzat.

Bertzalde, lehen aldikoz egiteñ baldin baziren ere, Mutxikoek izigarri erantzun polita izan dute. Egileen artean, aipa dezagun bertzeak bertze, Parisen finkatu Pierre Goyenetxhe saratarraren sukaldaritza liburua biziki preziatua izan dela, eta sekulan baino musika egile gehiago etorri direla aurten Sararat.

Bere XVIII. urtemuga pasaturik, dudarik ez da Sarako Idazleen Biltzarra heldutasunean sartu dela. Zorionak!

## Euskal Dantzarien Biltzarra

### Dantzari Ttiki Eguna maiatzaren 8an

Euskal Dantzarien Biltzarrak, ipar Euskal Herriko dantza taldeen federazioak antolaturik, Dantzari ttiki Eguna ospatuko da maiatzaren 8an. Goizean, 35 dantza talde 10 herritan banatuak izanen dira. Hala nola Zazpiak Bateko ordezkariak Uharte-hirin dute hitzordua, bertze taldeak Donibane-Garazin, Baigorrin, Donazaharren, Anhouzen, Azkaraten, Lasan, Lakarran, Izpuran edo Arnegin arituko direlarik. Arratsaldean, aldiz, talde guziek bat eginen dute Donibane-Garazin, 14:30etan desfilean parte hartzeko. Ondotik, ikusgarria izanen da.

Bertzalde, Saratik abiatuko diren 60 dantzariak herriko plazan bildu beharrak dira goizeko 9:30etan autobusaren hartzeko.

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA
CAFE DE LA MAIRIE
MAIXAN ETA VÉRONIQUE
SARA • TEL 0559542519



## EZKONTZAK

**Hervé Monet** eta **Dorothée Grenapin**, Senperekoa, ilbeltzaren 13an.

**Jean-Louis Lajus** eta **Marie Duhalde**, Senperekoak, otsailaren 24an.

**Pedro Aiestaran Rota** eta **Virginia Begiristain Zelaieta**, Iruñekoak Lekarozen, apirilaren 7an.

**Iñigo Mitxeo Calvo** eta **Maite Oskoz Lertxundi**, Almandozkoak, martxoaren 31n.

**Isidro Ballarena Iturregi** eta **Natahalie Telletxea**, Elizondo eta Ainhoakoa, apirilaren 7an.

**Jean Philippe Pascassio Conte Larzabal** eta **Maria Teresa Altzate Sarratea**, Urruña eta Berakoa, apirilaren 7an.

**Hélène Olagaray** eta **Eric Roulant**, Sara eta Donibane Lohitzunekoa, apirilaren 24an.



**Felix**
**AROZARENA ETXEBERE**

Apirilaren 11n Urdazubil hil zen,
51 urte zituelarik

*Izarrik ederrena, hor goiko zeruan*
*zu izanen zarela, guri dizdiran.*

Egun gogor hauetan beren elkartasuna eta kontsolamendua erakutsi dakuten guztiei, milesker aunitz ematen diotegu.
**FAMILIA.**



## JAIOTZAK

**Uxue Menta Hernandez**, Urdazubikoa, apirilaren 15ean.

**Andoni Seisdedos Ortiz**, Lesakakoa, martxoaren 19an.

**Pauline Coqueugniot**, Senperekoa, urtarrilaren 12an.

**Thomas Joseph Amigorena**, Senperekoa, urtarrilaren 12an.

**Enaut Fordin**, Senperekoa, urtarrilaren 25ean.

**Sara Olaziregi**, Senperekoa, otsailaren 4an.

**Lucas Leroy**, Senperekoa, otsailaren 26an.

**Celia Doiminique Alice Latxarte**, Senperekoa, otsailaren 14an.

**Léa Nadine Lysiane Prouteau**, Senperekoa, otsailaren 23an.

**Klara Julie Marie Suraud**, Senperekoa, martxoaren 8an.

**Léo Prieu**, Senperekoa, martxoaren 10ean.

**Xane Marie Pony**, Senperekoa, apirilaren 10ean.

**Julen Iriarte Azkarraga**, Arizkungoa, apirilaren 4ean.

**Olhane Iriarte Elizaintzin**, Arizkungoa, apirilaren 15ean.

**Nora Burgete Sevilla**, Elbetekoa, apirilaren 17an.

**Ainitze Zestau Mariñelarena**, Leitzakoa, apirilaren11n.

**Andrea Zabala Pikabea**, Doneztebekoa, apirilaren 18an.

**Sara La Torre Goia**, Berakoa, apirilaren 3an.

**Beñat Arraztoa Lazkanotegi**, Berakoa, apirilaren 10ean.



## HERIOTZAK

**Antonio Martinez Pena**, Senperekoa, ur-tarrilaren 20an.

**Georges rené Dupre**, Senperekoa, urta-rrilaren 25ean.

**Antoine Jorajuria**, Senperekoa, urtar-laren 31n.

**Marie-Loluse Darancette**, Senperekoa, otsailaren 1ean.

**Denis Jean Barbez**, Senperekoa, otsa-laren 23an.

**Yves Philippe Léon Gallois**, Senperekoa, otsailaren 27an.

**James Henri Brouillet**, Senperekoa, mar-txoaren 12an.

**Camille Juliette Thomas**, Senperekoa, martxoaren 14an.

**Elisabeth Alexandrine Antoinette Ca-ssarieu**, Senperekoa, martxoaren 15an.

**Ghislaine De Loze de Plaisance**, Senperekoa, martxoaren 11n.

**Joseph Malkorra**, Senperekoa, martxo-aren 24an.

**Michel Sorhaitz**, Senperekoa, martxoa-ren 29an.

**Thierry Michel Jean Duret**, Senperekoa, apirilaren 9an.

**Josette Marie Louise Marion**, Senpere-koa, martxoaren 31n.

**Juliette Fontagnere**, Senperekoa, apri-laren 5ean.

**Marie Jorajuria**, Senperekoa, apirilaren 11n.

**Maria Catalina Iriarte Arotzarena**, Elizondokoa, apirilaren 15ean, 66 urte.

**Gregorio Ramirez Mitxelena**, Elizon-dokoa, apirilaren 19an, 66 urte.

**Jose Perez Traverso**, Elizondokoa, api-rilaren 20an, 79 urte.

**Santiago Uterga Arrupea**, Doneztebekoa, apirilaren 22an, 70 urte.

**Miguel Luis Zestau Zabaleta**, Leitzakoa, apirilaren 22an, 84 urte.

**Martin Jose Perurena Sagastibeltza**, Leitzakoa, apirilaren 21ean, 82 urte.

**Felix Arotzarena Etxebere**, Urdazubikoa, apirilaren 11n, 51 urte.

**Juan Ansalas Zubieta**, Etxalarkoa, api-rilaren 12an, 94 urte.

# MUEBLES METS

**Sarrera BERAtik da**

*Alkaiagako industrialdean*

*Sastrin karrika, 3.2 - 3.4*

**31789 LESAKA**

*Tfnoa. 948 630 537*

*Fax. 948 631 443*






**Sukaldeak**

**Egongelak**

**Logelak**

**Bainugelak**







Argaz.: AROTZENA

**Joseba BEOLA** *Berako auto gidaria*

## DATUAK...

- Joseba Beola auto gidari beratarrak ustekabean irabazi zuen Lesakako Rally Sprint auto igoera. Honenbertzez, Nafarroako txapelketako sailkapenaren buruan dago.

- 21 urte ditu eta hiru urte bakarrik daramazki auto gidari bezala. Etxalarko Igoeran estreinatu zen Citroen AX GT batekin eta Saxoa gidatzen du orain.

- Carlos Sainz piloto handiak Madrilen duen zirkuitoan probak egiten ibilia da. Ez dute hautatu baina gustora dago esperientziarekin.

# «Auto ttikia dugunez, euria eta lohia duten ibilbideak nahiago ditugu»

**Aitor AROTZENA**

Citroen Saxo autoa gidatzen zuela Lesakako VI. Agiñako Igoera irabazi zuen apirilaren 8an Joseba Beola gidari beratarrak. Ustegabeko garaipena izan zen Josebarentzat ere. *«Fuerte dabiltzan gidariak etorriak ziren, Azkona ere hor zegoen... garaipena ez nuen espero»*. Garaipen honekin, Nafarroako Rally txapelketako sailkapenaren buruan jarri da eta hurrengo rallyetan sailkapen hori mantentzen saiatuko da Beola. *«Hau hasi bertzerik ez da egin, ikusiko dugu hurrengoetan zer gertatzen den. Saxoei bakarrik zuzendutako RAC Vasco-Navarro Kopan ere parte hartu nahi dut»*. Izan ere, Lesakakoa izan da orain arte lortu duen garaipenik garrantzitsuena. *«Batez ere Gipuzkoako rallyetan ateratzen gara eta han maila hagitzez handiagoa da. Hemen gure kategorian bortz gidari baldin bagara, Gipuzkoan igual hogeita hamar badira. Hemen ez da laitsun karrerarik egiten»*. Orain dela hiru urte hasi zen karreretan Beola eta Etxalarko auto igoera aukeratu zuen estreinaldirako. Citroen AX bat gidatzen zuen orduan.

**Urteko aurrekontua milioi bat terdi pezetatik goiti joaten da. Gero, istripua baldin baduzu, hori zure kontura doa. Patrozinatzailerik gabe hagitz kirol garestia da, bai.**

### «Denbora eta borondate handia behar da rallyetan ateratzeko»

Potentzia guttiko autoa gidatzen duenez, ibilbide tekniko xamarrak gustatzen zaizkio Beolari: *«Azpeitian eta, hiru karrileko errepide zabaletan ez dugu zer eginik, gurea baino hagitzez potentzia handiagoko autoak ateratzen baitira. Asfalto leunean aunitzez gehiago korritzen da, sobera guretako. Euria, lohia, zikina, errepide estu xamarrak eta bihurguneekin baldin bada guretzat hagitzez hobe. Horregatik Legazpiko RallySprinta gustatzen zait»*. Rallyetan ateratzeko, ongi gidatu eta laguntzaile onak izan behar dira. *«Gainera borondate handia behar duzu, denbora aunitz kentzen baitizu, errebisioak, entrenamenduak, piezak lortu... milaka gauza egin behar dira»*. Kirol garestia ere bada eta urteko aurrekontua milioi terdi pezetatik goiti joaten da. *«Gero, istripua izaten baldin baduzu hori ere zure kontura doa. Patrozinatzailerik gabe nahiko garestia ateratzen da, bai»*. Dena den, aitzinera segitzeko asmoa du Beolak. *«Lehenbizi proba bezala hasi nintzen, lasai ibili, ikusi... Orain aitzinera segitzeko asmoa dut. Madrilen izan berri naiz, Carlos Sainzen zirkuitoan proba batzuk eginez. Bi mila pilototik berrehun hartzen dituzte probetarako eta hortik bortz hautatu. Ni ez naute hautatu, baina hagitz esperientzia polita izan da»*.

LAXOA

# Hamabi taldek hasi dute XXII. Baztan-Errekako Laxoa txapelketa

Finala abuztuaren 5ean jokatuko da Elizondoko plazan

Hamabi taldek hasi dute laxoa elkarteak hogeita bigarren aldiz antolatutako Baztan-Errekako Laxoa txapelketa. Doneztebek lau taldeke plazaratu ditu, Iruritak hiru, Arraioz eta Oitzek bina eta Elizondok bat. Joan den urtearekin alderatuz, aurtengo taide bat gehiago lehiatuko da eta lehendabiziko aldiz bi talde gaztek jokatuko dute, berri aipagarri eta pozgarria Laxoa Elkartearendako.

Lehendabiziko fasean sei taldeko bi multzotan lehiatuko dira. Lehendabizikoan Doneztebe D, Elizondo, Doneztebe C, Doneztebe B, Arraioz A eta Irurita A ari dira. Bigarren taldean, berriz, Arraioz B, Doneztebe A, Oitz A, Irurita C, Irurita B eta Oitz B ari dira. Fase hau liga modura jokatuko da, joan eta etorriko partiduekin. Multzo bakoitzeko lau lehendabizikoek final laurdenetarako txartela lortuko dute. Final laurdenak uztailaren 1, 7 eta 14an jokatuko dira. Irabazleek finalerdiak jokatuko dituzte uztailaren 21 eta 28an eta azkenik, finala abuztuaren 5ean, Elizondoko plazan. Horrenbertzez, guzira 74 partida jokatu eta ikusi ahal izanen dira.



MENA

**Azken bi urteetan Arraioz eta Doneztebek jokatu dute laxoa txapelketako finala. Aurten Elizondoko plazan arituko dira finalistak.**

**GAZTETXOEN TXAPELKETA ETA PAXAKA**

Beranduxeago Baztan-Errekako Gaztetxoen txapelketa jokatuko da iraila eta urrian. Beti bezala, gazteek ikastea eta gero helduekin batera jokatu ahal izatea izanen da txapelketa honen helburua.

Azkenik, Laxoa Elkarteak Paxakako hirugarren txapelketari emanen dio hasiera neguan. Modalitatea berreskuratu da, beraz aurreko bi denboraldiek pentsatutako helburu eta asmo guziak bete dituzte. Gainera, erakustaldi ezberdinekin kirol honen etorkizuna hobetuko dela pentsatzen du Laxoa Elkarteak.



Artxiboa AROTZENA

**Gaztetxoen txapelketa handiena akitzerakoan hasiko da. Argazkian, gan den urteko finalistak.**

## BOTE PRONTON



### *Pernaute narbartearra Nafarroako txapeldun*

Pernaute narbartearra –argazkian, ezkerrean– eta Robles Nafarroako paleta goma txapelketako irabazle suertatu dira. Ilunberrin jokatutako finalean San Miguel anaiei 35-26 irabazi ondotik. Finaleko onena izan zen Pernaute, defentsan nahiz erasoan partidu bikaina jokatu baitzuen.

### *Felix Etxeberria eta Urrezko Aizkora*

Felix Etxeberria Sunbilako aizkolariak Barberena, Lopez eta Senosiain kanporatu zituen Urrezko Aizkoran, baina ezin izan zion Arrospideri irabazi, Doneztebenjokatutako lehendabiziko fasearen finalean. Eskuetako minak ez dio ahal zuen guzia ematen utzi, baina txapelketa ederra egin du Etxeberriak.

Orain Urrezko Aizkoraren bigarren fasea hasia da. Multzo batean Nazabal, Larretxea eta Olasagasti ari dira eta bertzean Peñagarikano, Arrospide eta Mindegia. Multzo honetako azken saioa maiatzaren 27an ikusiko da Donezteben eta bertan izanen da Mindegia. Multzo bakoitzean irabazle suertatzen diren bi aizkolariek finala jokatuko dute ekainaren 10ean Azpeitian.

# AGENDA egunez egun

## MINTZALDIAK

### ELIZONDO

**Maiatzaren 5ean** literatura tailerreko bigarren mintzaldian, Julen Gabiria "Connemara gure bihotzetan" liburuaren inguruan solastuko da.

## ERAKUSKETAK

### ETXALAR

**Ekaina bitarte**
Iker Isasi margolari doneztebarraren koadroak ikusgai Herriko Ostatuan.

## OSPAKIZUNAK

### BAZTAN

**Maiatzaren 12 eta 13an**
Hamabi Ordu Eskuaraz. Larunbatean 12 Ordu lasterka Lekarozen eta 7,30etan dantza jaialdia Elizondon. Igandean, argi soinuak herri guzietan. Eguerdian antzerkia eta ondotik herri bazkaria.

### SENPERE

**Maiatzaren 6an**
HERRI URRATS.

## KONTZERTUAK

### SARA

**Maiatzaren 5ean**
gaupasa: Sarako trikitixak, Unama, Empalot, The 3peace (Japonia), Anestesia eta Eztanda. Sarrera: gaueko 11k aitzin 30 Libera, ondotik 40 Libera.

### ELIZONDO

**Maiatzaren 4ean**
Kasinoan "Animese Martinez" (Ordizia).
**Maiatzaren 11an**
Kasinoan "Deriva" (Donostia).
**Maiatzaren 181an**
Kasinoan "BOL" (Lodosa).

## TELEBISTAKO TXOKOA




# Himalaiatik zuzenean

Bortzirietako Martiko Shisha Pangma 2001 espedizioa dagoeneko Nepaleko lurretan dago bigarren zortzimilakoa goitzeko asmoarekin. Nahiz eta beraiek Shisha Pangmari aurre egiteko indar aski izan, ez zaizkie batere gaizki etorriko hemendik bidaltzen zaizkien animoak. Horretarako, iaz Gasherbrum II espedizioarekin egin bezala, telefono bidezko harremana izanen du TTIPI-TTAPA TELEBISTAk mendizaleekin. Konexio hauen bidez espedizioaren berri emanen digute Agerra Mendi Taldeko gazteek.

Orain arte dakigunez eguraldi txarra izan dute hasieratik, eta materiala oinarrizko kanpamentura garraiatzeko arazoak izan dituzte horregatik. Hala ere, beraiek jakinarazi digutenez, gauzak itxura hobea hartzen ari dira pixkanaka eta kanpamentua ezarri dute 5.800 metrotan. Aste honetan bertan, seguraski ortzegun edo ortziralean, egin beharko dute gailurra lortzeko saiakera, maiatzaren 18rako Beran egoteko asmoa dute eta.




## DISKAK




*«Quercus Endorphina»*

### Oreka TX

*ELKARLANEAN*

Igor Otxoa eta Harkai Martinez txalapartari dira Oreka TX taldea es hau da beraien lehend koa. 1997an bikotea tu arte bietako bakotza txalapartaren inguru proiektu eta talde desb dinetan egin zuen la Oreka TX-ek bestela erritmo eta tinbreekin aproba egin du, harria metalak eta bertze mat rialak erabiliz, beti ere de berrien bila. Diskoa txalapartez gain akor deoia, alboka eta gitarra erabili dituzte.
Kepa Junkerarekin zu neko emanaldietan pa te hartzeagatik egin da ezagun, ez bakarrik Eu kal Herrian, baita mund zabalean ere. Izan er hemendik kanpo Eu pan, Amerikan eta Japo niako festibaletan jo du Junkerarekin, eta hor la internazionalki eman dute ezagutzera euskal kulturaren sinbolo den instrumentu hau.

## BASERRIA

Datu iturria: **NAFARROAKO GOBERNUA**

### ZERRIKIA



**Zerrikumea**
(19 kilo): 9.500 pta.

**Zerri gizena**
(95-100): 238 pta/k.

**Zerramak:**
145-155 pta./kiloa, bizirik.

### BEHIKIA



**Aretze gizenak:**
200/230 k
**Idixkoak/Urruxak:**
**Pta/kg. Kanal**
**Extra** 425-435
**1.koa** 405-415
**2.koa** 385-395
**Aretze gizenak:** 320 kilotik goiti
**Idixkoak/Urruxak:**
**Pta/kg. Kanal**
**Extra** 420-430
**1.koa** 400-410
**2.koa** 380-390
**Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):
**Nabarrak:** urruxak 28.000-30.000 eta idixkoak 31.000-33.000 Pta.
**Mestizoak:** urruxak 21.000-28.000 eta idixkoak 16.000-24.000 Pta

**Zaldikoak: Pta/k**
Sortuberriak: 555-565
Zaldi-behorrak: 375-385

**Bildotsak: Pta/k**
6-8kilokoa: 875-825
8-10 kilokoak: 750-80

## JAKIN BEHARREKOAK



# Alzheimer gaixoen senitartekoak

**Biztanlegoaren zahartzearekin eta bizi-esperantzaren luzatzearekin batera buruko gaixotasunek goiti egin dute, eta denen artean Alzheimerra nabarmentzen da. Lerro hauetan eria zaintzeko ardura dutenentzat baliagarria den gida ttiki bat azalduko dut.**

**Zer egin diagnostikoaren ondotik?**

Lehendabiziko gauza eriaz nor arduratuko den erabakitzea da, familia bera edo zentro berezi bat. Ahal izanez gero hobe da familiak hartzea lan hau, gaixoak berezkoa duen ingurunean segi dezan. Bertzalde, ez da batere egokia pertsona hori etxe batetik bertzera aldatzen ibiltzea. Izatekotan zaintzaileak joan beharko dira aldatzen, eta hori guziz ezinezkoa baldin bada zentru espezializatu batera eramatea gomendatzen da.

Gaixoa etxean kontzea erabakitzen bada zaintzaileak bere bizitza nabarmen aldatuko dela bameratu behar du. Zaintzailearengan gaixoarekiko sentimendu desberdinak sortu daitezke: haserrea, angustia, estresa, depresioa…, auniztan eriarentzat gauza desatseginak desiatzea ere gertatzen da. Kontuan izan sentimendu hauek guziz normalak direla, baina momentu batean guzi horrek gainditu eta kontrola galtzea eragiten badizu, profesionalen laguntza eskatzeko ordua ailegatu da.

**Nola zaindu zaintzaileak bere burua:**

• Egunero zuretzat eta zure familiakoentzat astia gorde.

• Zure hobbietan segitu.

• Ez isolatu eta zure harremanekin segitu.

• Eskatu laguntza. Hau da, ez izan pertsona bat kontratatzearen beldur, bera eriarekin ordu batzuk egoten den bitartean zuk denbora librea izateko.

• Gaixoaren ongizatea neurri handi batean zure ongizatearen araberakoa da.

RAKEL AMIGO
BORTZIRIETAKO GIZARTE ZERBITZUA

## LIBURUAK




*ROCK'N ROLL*
**AINGERU EPALTZA**
*ELKARLANEAN*

Liburuaren izenak bertzerik adierazten badu ere, nobela honetan ez da musikari bakar bat ere ageri. Kazetari alkoholzale bat da protagonista, Edu, andreak etxetik bota du eta egunkariko erredakzioan ez dabil batere gustora. Bere ondoan bere betiko lagunak daude, Ximurra, guztiz burges bihurtu dena, Ttipi, bertzeen biziaz informazioa biltzen etengabe aritzen dena bainan bere biziaz deus kontatzen ez duena, Charly, garai zaharretan bezala porro, moto eta neska artean dabilena. Guzientzat Lou Reeden "Rock'n Roll" kantua sinbolo bat da, gaztetako errebeldiaren eta oraindik lotzen dituen elkartasunaren ikurra. Kontakizuna 1999ko udako bi astetan gertatzen da: atsoen gorpu desagertuak, hatz mutilatuak, kazetari gogogabetu baten ikerketak, susmo ugari eta argitasunik ez, hilketak eta hilketa saioak…

# AGENDA
## egunez egun

### KONTZERTUAK

**BERA**

**Maiatzaren 5ean**
"Luis Haranburu Big Band", arratsaldeko 8etan Kultur Etxean.

**Maiatzaren 13an**
"Trintxerpeko Akordeoi Orkestra".

**ETXALAR**

**Maiatzaren 19an**
"Los Rosslis" Herriko Ostatuan.

### KULTUR ASTEA

**URRUÑA**

**Maiatzaren 13a arte**
"Irudiak kantari" erakusketa Postan.

**Maiatzaren 4an**
Kantu afaria. Kuxkuxtu txaranga eta Tapia eta Laluna. Arratseko 8etarik aitzin Pausuko.

**Maiatzaren 8a**
"Ama" dokumentala, arratsaldeko 19etan.

**Maiatzaren 12an**
Haurren Eguna
"Angus" filma euskaraz, 16,30etan Itsas Mendi zinema aretoan.

**Maiatzaren 13an**
Besta Herrikoia

### GUARDIAKO BOTIKAK

**112 TFNORA. DEITU**

**Apirilaren 30etik maiatzaren 6ra**
Lesaka, Narbarte, Irurita eta Goizueta.

**Maiatzaren 7tik 13ra**
Bera, Doneztebe, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

**Maiatzaren 14tik 20ra**
Etxalar, Sunbilla, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizueta.

# MERKATU TTIKI...

ZEIN ERRAZA DEN ZURE ANUNTZIOA HEMEN JARTZEA

00-34 948 63 11 88

Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu behar da; ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero igo... 1.000 pezetak Rural Kutxako 3008 0088 53 0200015200 ... justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!


**ETXEBIZITZAK**
- **101.** Saldu
- **102.** Erosi
- **103.** Errentan emateko
- **104.** Errentan hartzeko
- **105.** Etxe konpartituak
- **106.** Bertzelakoak

**GARAJEAK/LOKALAK**
- **107.** Saldu
- **108.** Erosi
- **109.** Errentan emateko
- **110.** Errentan hartzeko
- **111.** Bertzelakoak

**LURRAK/ORUBEAK**
- **112.** Saldu
- **113.** Erosi
- **114.** Errentan emateko
- **115.** Errentan hartzeko
- **116.** Bertzelakoak

**ZERBITZUAK**
- **201.** Hargin/Igeltseroak
- **202.** Pintoreak
- **203.** Elektrizistak
- **204.** Iturginak
- **205.** Zurginak
- **206.** Mendi lanak
- **207.** Garraioak
- **208.** Bertzelakoak

**LANA**
- **301.** Eskariak
- **302.** Eskaintzak

**IRAKASKUNTZA**
- **401.** Eskaintzak
- **402.** Akademiak

**MOTORRA**
- **501.** Salerosketak
- **502.** Tailerrak

**ANIMALIAK**
- **601.** Emateko
- **602.** Salerosketak
- **603.** Klinikak

**DENETARIK**
- **701.** Galdu / aurkituak
- **702.** Salerosketak
- **703.** Bertzelakoak

**HARREMANAK**
- **801.** Agurrak


## ETXEBIZITZAK
### 101 SALDU


BULDAIN
Leitzan 5 pisu salgai, herietako 2 igogailuarekin.
Garajeak eta lokal komertzialak salgai.
✆ 649 476 615
✆ 948 510 534 lokuaz

ADOS
- Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajerak etab. erosi nahi dira.
✆ 948 451 841
607 978 656

ADOS
BERA. Lur-eremua erosi nahi dugu pisuak edo etxeak egiteko.
✆ 948 451 841 • 607 978 656


**LESAKA.** Antoiu karrikan 85 m²ko pisua salgai. ☎ 948 637 333 (eguerdietan eta 19etatik aitzinera).

**BERA.** 79 m²ko pisu moblez- tatua salgai. ☎ 948 630 943.

**LEITZA.** Patxi Arrazola kalean pisua salgai garajerako aukerarekin. ☎ 696 332 028 eta 948 610625.

**IGANTZI.** Pisua, garajea eta sotoa salgai. ☎ 948637845 (1etatik 3etara).

**IGANTZI.** 90 m²ko pisua salgai. Hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna. ☎ 687 950 373.

**IRUÑEA.** 80 m²ko pisu berritua salgai Milagrosa auzoan. 3 logela eta kalefakzioa. ☎ 948 243 749.

**ELIZONDO.** Alkullegi karrikan pisua salgai. ☎ 948 580 880 (eguerdi eta gauetan).

## GARAJEAK
### 107 Saldu

**BERA.** Eztegara karrikan 40 m²ko bajera salgai. ☎ 948 630 363.


ADOS
SUNBILLA: 26 etxe elkar atxikiak
Babes Ofizialeko 12 etxebizitza
90 m² + 40 m² garaje + lur zatia = 18.500.000 Pta.
90 m² + 40 m² garaje = 15.164.945 Pta.
14 etxebizitza modalitate librean
106 m² + 50 m² garaje + lur zatia = 23.900.000 Pta.



Hasiak gara erreserbak egiten.
Argibideak:
✆ 948 451 841
607 978 656

YAMAHA
TATANKA
STIHL
HUSQVARNA
LESAKA


## LANA
### 301 Eskariak

**Neska ukraniarrek** jatetxe edo hoteletan edo adineko pertsonak zaintzen lan eginen lukete. ☎ 948 630 387.

**Neska batek** haurrak zaindu ko lituzke arratsaldez Bortzirietan. Haur heziketa egindakoa eta esperientziaduna. ☎ 636 901 283.


Alicia T. Erlanz
BEHAR DITUZUEN LAN TXIKI HORIENTZAT
OFIZIALE GUZTIAK
SERVI - LAN..
Elizagibela, 5 • DONEZTEBE
Tel. 948450193 • Fax. 948450760


## LANA
### 302 Eskaintza...

Mantenimend... bitzuteknikoa... **koa** behar da ☎ ... 083.

**Pertsona bat** ... buruetan ... ko. ☎ 619 450 ...

Bordatxo... **eta baso-...** dira. ☎ 948 63...

**Irungo ostatu...** egiteko bi neska... Baldintza ... jakitea, eta ... badute hobe ☎ ... (eguerdi eta ... ki).


2001eko telefono gida

Ez duzula eskuratu? Deitu **948 63 11 88** telefonora



...tzaria eta sukaldari ...zalea behar dira. ☎ ...

...behar du Kontsei... ...ndunza Eskubideen ...ko. Maiatzaren ...hen deitu. ☎943 ...

...batean ka-... ...behar da asteburue... ☎ 650 409 246.

**...TORRA**

**... Salerosketak**

...Escort TD salgai, 5 ur... ☎ 948 630 999.

**...TORRA**

**... Tailerrak**


**...NDAUR MOTOR**
... • DONEZTEBE
...eskuko kotxeak:
...Hdi TDI 5 ate, ... Nissan Patrol, Clio D. ... egokitua.
...



**LODITASUNA**

**EDAN ETA ARINDU!**

*Zure pisua kontrolatzeko ... gabe*

☎ 948 13 11 36


**ANIMALIAK**

## 602 Salerosketak

Arantzan **bi aretze betizu** salgai, haragitakoak. ☎ 948 634 180.

**Artzain-txakurkumeak** salgai. ☎ 646 835 594.

**Yorkshire ertaina eta fox-terrier** zakurkumeak salgai. ☎ 679 892 036 (arratsaldeko 6etatik aitzinera deitu).

Bi hilabeteko txakurkume **pekinesak** salgai. ☎ 677 089 430.

**DENETARIK**

## 702 Salerosketak

300 litroko **esne tankea** salgai. ☎ 948 610 847.

# BORTZIRIETAKO HIRI HONDAKINEN MANKOMUNITATEA

## FAMILIA LANGILEEN ORDEZKAPENAK EGITEKO LAN POLTSA OSATZEKO DEIALDIA

Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak familia langileen lan-poltsa egin nahi du etxez etxeko zerbitzuan ordezkapenak egiteko.

**Baldintzak:**

- Gidatzeko baimena eta autoa izan.
- Euskalduna
- Test moduko froga bat gainditu.

Kontuan hartuko dira egindako ikastaroak eta lan esperientzia.

Deialdian parte hartzeko eskaera eta kurrikuluma aurkeztu beharko dira maiatzaren 11ko eguerdiko 12ak baino lehen, Mankomunitateko bulegoetan Etxalarren.

Etxalarren, 2001.04.29
Presidentea
Miguel Mari Irigoien Sanzberro

# BERAko UDALA
AYUNTAMIENTO DE BERA

## U.U.15eko URBANIZAZIO OBRAK (2. zatia)

- **Kontratuaren xedea:** U.U.15eko urbanizazio obrak (2. zatia) egitea.
- **Esleipen modua:** Prozedura irekia, lehiaketaren bidez.
- **Kontrata aurrekontua:** 90.764.447 Pta. / 545.505,31 euro (BEZ barne).
- **Kalifikazioa:** G taldea, 4. azpitaldea, d) maila.
- **Proposamenak aurkeztea:** Iragarki hau NAOn argitara eman eta ondoko 27. egun naturala arte. Orduak: 9:00etatik 13:00etara. Azken eguna larunbata suertatzen bada, astelehenaraino luzatuko da.
- **Proposamen ekonomikoak jendaurrean irekitzea:** Proposamenak aurkezteko epea bukatu eta ondoko 5. lanegunean. Egun hau larunbata suertatzen bada, hurrengo astelehenean irekiko dira. Ordua: 14:30.
- **Proiektua, baldintza tekniko eta klausula administratiboen** plegua eta gainerako baldintzak interesatuen eskura leku hauetan izanen dira:
  - -Udal bulegoetan
  - -Rubio paperdenda: Fco. Bergamin, 10 (Iruñea)
  - -Ingesoa: Iturlandetan karrika (Bera)

Bera, 2001.04.2
ALKATEA, Josu Goia Etxeberria


**KULTURKARI**

**Inprenta lanak egiten ditugu**

- Kartelak
- Boletoak
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak

...behar duzuna momentu ...egingo dugu; ...diseinatu, ...desberdinekin ...hoberena ...eta listo! ...eskatu ...eta ikusiko ...

948 63 11 88


# IGANTZIko UDALA

## XEHETASUN AZTERLANA: HASIERAKO ONESPENA

Igantziko Udalak, 2001eko martxoaren 30ean egin duen osoko bilkuran, Katastroko 2. poligonoko 48. lurzatiaren xehetasun azterlana, Excavaciones ORSA S.L. enpresak sustatua, hasiera batez onestea erabaki zuen.

Uztailaren 4ko 10/1994 Legearen 114. artikuluan ezarritakoari jarraituz, onespen hori jendeaurrean jarriko da iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost eguneko epean, aztertu eta alegazioak aurkez daitezen.

Igantzi, 2001.04.09

ALKATEA

Eduardo MIGELENA LEGASA

# BERAko UDALA
AYUNTAMIENTO DE BERA

## UDAL KIROLDEGIAN GIMNASIO GELA MOLDATZEKO LANAK

- **Kontratuaren xedea:** Udal kiroldegian gimnasio gela moldatzeko obrak.
- **Esleipen modua:** Prozedura irekia, lehiaketaren bidez.
- **Kontrata aurrekontua:** 23.750.829 Pta. / 142.745,36 euro (BEZ barne).
- **Proposamenak aurkeztea:** Iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta ondoko 27. egun naturala arte. Orduak: 9:00etatik 13:00etara. Azken eguna larunbata suertatzen bada, astelehenaraino luzatuko da.
- **Proposamen ekonomikoak jendaurrean irekitzea:** Proposamenak aurkezteko epea bukatu eta ondoko 5. lanegunean. Egun hau larunbata suertatzen bada, hurrengo astelehenean irekiko dira. Ordua: 14:30.
- **Proiektua, baldintza tekniko eta klausula administratiboen** plegua eta gainerako baldintzak interesatuen eskura udal bulegoetan izanen dira.

Bera, 2001.04.04

ALKATEA, Josu Goia Etxeberria

3com Canon EPSON IBM Business Partner INVESTRÓNICA amena BPM

Informatika eta telekomunikazio tresnen SALMENTA eta AHOLKULARITZA partikular zein enpresentzat

PC pertsonalak
PC profesionalak
Portatilak
Softwarea
Faxak
Eskanerrak
Kamara digitalak

BidaShare
INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIOETARAKO TEKNOLOGIAK
BidaShare@Bidasoa.com

Fotokopiagailuak
Zentralitak
Zerbitzariak
tpv-ak, telefono mugikorrak...
eta bestelako osagarriak

Web orrialdeak egiten ditugu!
Informazioa: ✆ 948 451985 • 646 752266 • Faxa: 948 456070 • SUNBILLA

BT DATISA FUNAI intel inside pentium III intermec inves Kingston LG Panda Software PHILIPS Telefónica MoviStar Lotus. uni2 Xerox retevision RICOH SP TOSHIBA

ORDOKI
ALTZARIAK
Estilo ugariko mobleak
Larunbat goiz eta arratsaldez irekia

ERAKUSKETA
SALTOKIA
Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 948
NA-31780 LESAKA

Armairu enpotratuen erakusketa Bittirian








# BORDATXO

## MAIATZEAN

MARIATXIEN BESTA IKUSGARRI

5 LARUNBATA

LOS CHARROS

12 LARUNBATA

CITROËN SAXO BATEN ZOZKETA

DISKOTEKA

19 LARUNBAT

ZOZKETA BERRIA

(Maiatzaren 12an irabazlerik agertzen ez bada)

EKAINAREN 2a. LARUNBATA

SASOI BUKAERAKO BESTA

SARRERA LIBRE!!

MILESKER, GUREKIN IZATEAGATI

ZOZKETATUKO
DEN AUTOA IKUSGAI
DAGO TERRAZAN

ETXALAR
HOTEL-VENTA

IRUÑA - IRUN ERREPIDEA, 70 KM.
**ETXALAR** (NAFARROA)

